

uk

228. zenbakia / 2013ko otsailaren 25a



URTERO 20€

Urtero UK aldizkariaren 20 zenbaki
 Urtero Uribe Kostan gertatzen denaren berri
 Urtero eskualdeko euskarazko aldizkari bakarra zure etxean
 Urtero argazki zahar eta barriak
 Urtero zure proiektuak lau haizetara
 Urtero 20 euro

uk  Harpidetu eta jaso UK zure etxean, hamabostero. Urtero 20 euro.

www.ukaldizkaria.biz neuk ere gura dot **UK URIBE KOSTAKO ALDIZKARIA UK 94 491 13 37 UK uk@aldizkaria.biz**



Izan gaitezen praktikoak.
Dacia Sandero berriaren fidagarritasun osoa

4.700€¹
PIVE Planarekin

- ESP, ABS, SAFE
- 4 airbag
- Eguneko argiak
- Direkzio lagundua

3 URTEKO² BERMEA EDO 100.000 km

Dacia Sandero berria: kontsumo mistoa (l/100 km), 4,8 eta 5,8 bitartekoa. CO₂ emisioa (gr/km) 99 eta 135 bitartekoa.

1. Adierazitako PSPa penintsularako eta Balear Uharteetarako da, eta 13/02/28ra arte iraungo du eskaintzak, partikular batek edo langile autonomo batek Sandero Base 1.2 55 kW (75 ZP) berria erosi dezan, PIVE Planeko baldintzak, deskontuak eta zergak kontuan hartuz eta RCI Banque S.A. Sucursal España erakundeak finantzabuz. Gukienaz finantzatu beharreko zenbatekoa 4.000 €-koa izango da. RESCAK diruz lagundutako deskontua, finantziarioari lotuta dagoena eta Sandero Berria ganako edozein ibilgailuri aplikagarri zaitona. Irudiko modeloa: Sandero Laurate 1.2 75 ZP berria (PSPa PIVE Planarekin: 7.050 €).

2. Bermea lehen bi urteetarako, kilometro-kopurua edozein dela ere. Bigarren urteik aurrera, 2 baldintzetako bat gertatzen denean amaituko da bermea. **Daciak gomendatzen du eif**

BILBO BERRI. Jon Arrospeide, 20. Tel. 94 448 39 00. Devstu - Bilbo www.bilboberri.com
LEIOA BERRI AUTO. Iparragirre Etorbidea, 24, tel. 94 480 42 90, Leioa www.renault.es/concesion/leioaberri

UK URIBE KOSTAKO ALDIZKARIA

ARGITARATZAILEA: Boluntzarreta Elkartea
 HELBIDEA: Martikoena 16, 2. solairua 48992 GETXO
 e-mail: uk@aldizkaria.biz / Posta Kutxa 171 / Tf. 944 911 337
 ZUZENDARIA: Irantzu Sagaminaga
 ERREDAKZIOA: Zuberora Iturburu, Julen Nafarrate, Nere Gujarrubia, Irantzu Sagaminaga
 FOTOGRAFIA: Asier Mentxaka
 TESTUEN ORRAZKETA: Ziortza Vega
 KOLABORATZAILAEK: Jorje Perez, Bittor Egurola, Fredi Paia, Armando Llamasas, K. Olate, Amaia Arriaga, Pedro Garcia Larragan, Arizta Bergara, Algortako Bertso Eskola eta Bizarra Lepoan Euskara Elkartea
 MARRAZKILARIA: Dogan Gozel
 PUBLIZITATEA eta SUSTAPENA: Erika Martinez (944 911 337)
 FILMAZIOA: Parima Digital S.L. / INPRIMATEGIA: GESTINGRAF
 LEGE GORDAILUA: BI-1878-00
 ISSN: 1576-6799
 © Boluntzarreta



ERAKUNDE LAGUNTZAILEAK

	
	
	
	
	
	
Bizkaiko Foru Aklundia Diputacion Foral de Bizkaia Kulturako Saila Departamento de Cultura	

Non zer

4. PLAZA.
5. IRUDIA. Lourdes Artetxe D'Arpont euskaltzaleari gorazarrea.
6. FACEGUK. Nori eragiten dio gehien krisiak?
7. LEHEN ETA ORAIN. Getxoko Andra Mari eliza.
8. TALAIA. Beste begirada bat eskualdeari.
11. ERRETRATUA. Aurelio Intxaurtieta.
12. HERRIZ HERRI. Getxo 12. Leioa 16. Erandio 18. Sopela 20. Berango 22. Gainontzeko herriak 23.
25. AGENDA.

SAKONEAN

26. ALBUMA. Inauteriak Sopelan.
28. ARGAZKIA. Munduko tortilla handiena egiten Gorlizen.
30. BERBETAN. Eunate Muruaga eta Nerea Gujarrubia.
34. FOTOGRAFIA. Kepa Acero eta Pakea Bizkaia.
40. SAKONEAN. Uribe Kostako dorrebeak.

KULTURA ETA AISIA

42. ZINEMA. Euskara Jendea dokumentala.
43. MUSIKA. Mobydick bigarren diskoa prestatzen.
44. LIBURUAK. Kamele Jai irakurzaileen Txokoan.
45. KIROLAK. Maria Lopez de Eguilaz.
46. MUNDUKATUAK. Iosu Albizu.
47. JENTILKOKA. Basajaun eta Basandere.

AMAITZEKO

49. PINTXOTAN. Onddo pil-pila.
50. HOROSKOPOA.
51. KOMIKIA. Dogan Gozel.
52. DENBORAPASA ETA LEHIAKETA.
53. FLASH BACK. Zuazagoitia Farnaziaren aurrealdean, 1880-1882.
54. AITORMENAK. Haimar Arejita.

Azala: Kepa Acero eta Pakea Bizkaia


www.ukaldizkaria.biz




30 N. Gujarrubia eta E. Muruaga

Berbetan

Eskualdeko Korrika arduradunagaz eta Uribe Kostako AEK-ko arduradunagaz berbetan egon gara.



11 Aurelio Intxaurtieta



54 Haimar Arejita

aldizkaria etxean jaso gura baduzu

HARPIDETZA > bete azpiko fitxa eta guri bidali

Izena..... Deiturak.....
 Kalea/zenb..... Herria.....
 e-mail.....
 Telefonoa..... Mugikorra.....

Urtero 20 euro 30 euro 50 euro
 beste kopuru bat euro

Kontu zenbakia (20 digito)
 □□□□ □□□□ □□ □□□□□□□□□□

Leihatila

> Arrate Illaro

Mozorroak

Otsailen inauteriak izan ditugu. Urtero bezala, etxeko trapu zaharrak hartu eta lotsarik gabe irten gara kalera, izan pailazo, pirata edo deabru.

Badago beste mozorro mota bat, ordea, lotsa gehiago ematen didana: egunero egunero, (ustez) behartuta erabili behar izaten duguna. Ogia erosterakoan, autobuseko txartela ordaintzerakoan zein kiroldegiko txarteldegian informazioa eskatzerakoan, erdaldun mozorroa janzten dugu, euskaraz ulertuko ez digutelakoan.

Bada, nik azken aldian sorpresa polita hartu dut gure herrian. Gehiegitan erdaraz egiten nituenak euskaraz egiten saiatu, eta aibala! Ogi saltzaileek, autobus gidariak zein kiroldegiko langileek ere euskaraz hitz egiten dute. Eta beste askok, ulertu ulertzen dute. Bai, Uribe Kostan guk uste baino gehiago bizi gaitzke mozorrorik gabe. Gu ote gara geure buruari traba egiten diogun lehenak?

Kendu ditzagun mozorroak, eta jantzi gaitzen euskaraz. Zergatik ez?

gu geu

Bidea(k) eta bidelagunak

“Araban ‘bagare’, Gipuzkun ‘bagera’, Xiberun ‘bagire’, (e)ta Bizkaian ‘bagara’, baita ere, Lapurdi ta Nafarran...”; Ez, guztiok ez gara euskaldun, ezta anaiak ere.

Euskal Herria euskalduntzeko bada lana, bada beharra, badira hamaika oztopo, bazterretan sasi, moduetan zalantza... Baita elkarlana ere, eginahala, ahalegina, ilusioa, indarra, konfiantza, helburuan ziurtasuna... Hori ere bai!

Ibilaldi luzea euskaldunena... Hastapenak mende zehatz bakoetan galduta dituen... Eta hala izan dadila etorkizuneko ere! Aurrerantzean, lan askoko ibilbide luzea dugu, bai, Euskal Herri euskalduna gura badugu. Horretarako ibiltariak, bidelagunak, bidaiariak, laguntzaileak, bide-babesleak, dan-danak behar-berrezkoak dira. Emakume eta gizon. Ume eta agure. Langile eta politikari. Anaia, ahizpa, neba eta arreba. Berdintasunean eta euskaldun...

Zugaz batera geure esku dago. Hasteko, lehenengo beroketa baino ez bada ere, parte hartu Martxoak 8ko eta Korrikako ekitaldietan.

UK-ko lan-taldea

Iritzia

Hirigintza planak berrikusteko prozesuak eskualdeko hainbat herritan martxan direla eta EHBildukoek beharrezkoa ikusten dute eztabaida kalera ateratzea.

Kosta ahala kosta!

“**Goizean goiz** esnatu umeak eskolara enamateko. Etxetik irten, txikiaren karroa esku batekin bultzatuz eta bestea eskutik helduta duzula. Obiko buelta eman eskailerak ekidin eta aldapa behera herri gunetik 15 minutura dagoen eskolara heltzeko. Behin umeak utzita,

«**Martxoaren 14, 15 eta 16an egingo dira jardunaldiak**»

lanera joan behar; baina lehengo ama lagundu behar duzu, aldatu apurtu zuenetik ezin du osasun zentrorako bide luzea bakarrik egin. 09:30ean kotxea hartu, Zamudioko poligonoan dagoen lantokira heltzeko. Lanaldia amaitutakoan, presaz hartu duzu kotxea berriz ere, umeak batu aurretik Arteara joan behar duzu erosketak egiten. Eskolara heltzean, Koldo agurtu duzu; bera beti bizikletaz. “Nola demonstre moldatuko da Berangotik Lemoizera egunero bizikletaz joateko?”. Neke-neke eginda zaude eta oraindik Jon igeriketara eramatea falta zaizu. Egunero bezala kiroldegiko apar-kalekua gainezka dago. Ordu betez kotxe

barruan itxaron behar duzu, taberna ziztrin bat ere ez baitago hurbil. Etxera heltzean leher eginda zaude eta asteburuan mendi aldera joatea pentsatzen duzu, faltan duzun aire freskoa arnastera”.

Uribe Kostako edozein herritarren egunero errealitatea izan daiteke aurreko hori. Gure auzo, herri eta eskualdeen antolaketa erabat baldintzatzen ditu gure bizimodua, elikadura, harremanak, kontsumo-ohiturak, baita umorea ere. Korridoreak, hondartzetarako errepide berriak, merkatal-gune erraldoiak, eraikitze neurrigabeak... erabat aldatu dute gure eskualdea. Lurralde Zati Planak edo herrietako Plan Orokorrek gure eta gure ondorengo bizitza baldintzatuko dute erabat. Urduliz, Sopela edo Getxon, besteak beste, martxan dira hirigintza planak berrikusteko prozesuak. Horregatik EHBilduk beharrezkoa ikusten du eztabaida kalera atera eta gure eskualdearen antolaketa inguruan hausnarketa kolektiboa bultzatzea.

Horretarako, martxoaren 14, 15 eta 16rako antolatu ditugun “Kosta ahala kosta, Uribe Kosta” Jardunaldietan parte hartzea gonbidatzen zaitugu. Bertan, hirigintza eta lurralde antolaketa inguruko hainbat esparru landuko dira, hizlarien laguntzaz. Azken urteotako bilakaera, hirigintza genero ikuspegitik, lehen sektorea, etxebizitza, parte-hartze mekanismoak, lurralde antolaketaekin lotutako Uribe Kostako borrorak... hitzaldi, mahainguru eta solasaldien bitartez hausnarketa berpiztu nahi dugu. Auzo-elkarte, jai-batzorde, mendi-talde zein herritar interesatuek asko daukazuelako esateko, ateak guztientzat egongo dira zabalik. Egitarau osoa eta informazio gehiago nahi izanez gero Uribe Kostako Bilduko web-guneetan eta sare sozialetan aurki dezakezu (www.bildu.info/herria).

Kosta ahala kosta, Uribe Kosta guztion artean egin behar dugulako... hurbil zaitetz!

Maitane Nerekan
(Uribe Kostako EHBILDU)



ROMON OTSAILAREN ISEAN

Izar bat piztu da...! Otsailaren 8an zendu zen Lourdes Artetxe D'Arpont euskaltzalea eta romotarrak omenaldia egin zioten astebete beranduago, ekitaldi hunkigarri batez. “Gau eskolan euskaldundu eta bizi-proiektua euskaraz loruz, AEK-n lan eginez eta euskararen aldeko ekimenetan parte hartuz. Baina Lourdesek kantuz adierazten zuen boberen sentitzen zuena”. Eta, horregatik, kantuakaz omendu zuten chunka lagunek: kantuak abestu zuten, hurkoen idatziak irakurri zituzten eta aurrësua eskaini zioten. Izarren hautsa kantatuz agurtu zuten auzokidea, izar barrira piztu delako Romoko zertuan. O / Argazkia: UKBERRI.NET

Auzokideen iritzia jakin gura duzu? Herrietan pil-pilean dauden gaiak, galdera umoretsuak, eztabaida sor ditzaketenak... Idatzi galdera **gure facebook**-en eta zeure partez luzatuko dugul!

Nori eragiten dio gehien krisiak emakumeei ala gizonei?



Asier Mendieta

> isurtegiko langilea

Estatistikei begiratzen badiegu, argi ikus dezakegu langabeen artean emakumeak gehienak direla; normalean, beraiei eragiten die gehien krisiak. Horrez gain, oro har, lan egiteko izaten dituzten baldintzak gizonezkoenak baino okerragoak izaten dira.



Haizea Zarraga

> langabea

Nik uste dut emakumeei eragiten diela gehiago. Izan ere, emakume izate hutsagatik traba gehiago jartzen dizkiete lanbide batean hartzeko; agian, haurdun gera daitezkeelako. Horregatik, bakarrik zailtasun handiagoak daukate, eta krisian are gehiago.



Ander Lopez

> langabea

Agian ez dago hainbesteko ezberdintasuna emakumezko zein gizonezkoen artean. Lan batzuetan nahiago izaten dituzte emakumeak lan egiteko, barbarako, osakidetzan edo farmazietan. Halere, oro har, agian lanpostu gehienetan aukera gutxiago izaten dute lana eskuratzeko.



Sonia Rodero

> langabea

Nik uste dut krisiak kalte egiten diola emakume zein gizonari, betiere, arloaren arabera. Kasu batzuetan, erai-kuntzan, barbarako, kaltetuenak gizonetzkoak dira, gizonak direlako horretan gehien dihardutenak. Bestalde, beste arlo batzuetan, emakumezkoak dira krisia gehien pairatzen dutenak.



Arantza Urrutia

> irakaslea

Nire ustez, hasieran gizonetzkoen eragin zien gehien krisiak; izan ere, metalgintza eta eraikuntza arloak izan ziren kaltetuenak, eta horietan gizonak ziharduten. Ondoren, baina, kaltetuenak bai emakumeak bai gizonak izan dira, berdin-berdin eragin die.



Isabel Romero

> irakaslea

Arloaren arabera, baina nik uste dut emakumeei gehien eragiten diela. Izan ere, emakumeei gehiago kostatu zaie lan-munduan sartzea; hortaz, krisian ere zailtasun handiagoak dituzte. Horrez gainera, gaur egun, lan-munduan matxismoa pil-pilean dago; beraz, zailtasun gehiago dituzte.



Iraganez doa denbora* beti / GETXOKO ELIZA, GOIERRIKO ATEA

* Denbora: gauzak gertatzen eta izakiak aldatzen diren bitarte mugagabea.

uribitakora > inauteriak, aratusteak



Algorta, 2013ko otsaila

Testua: **Juani Peñagarikano**
Argazkia: **Patxi Lopez**

Txun-tata-txun,
Txun-tata-txun,
Nentorrenean
Andra Mari bidetik,
gazte taldeak
topatu ditut
trapu zaharrez jantzirik.

Bizardun andra
lodi-lodia,
gizon ipotxa atzetik,
denak saltoka
Algortaraino
kriston zarata sorturik.

Amak ta amamak
josi ta josi
mozorroak bukatzeko,
umeeek ta gazteek
disfrutatzen,
nagusien pozarako.

Txun-tata-txun,
txun-tata-txun,
Kartoizko bandak
tresna arraroak jotzen,
Gigoiti-beherak
ta traste bitxiak
arrastaka eramaten.

Hawaitar neskak
lirain-lirainak,
mutilak berriz
beltz-beltzak,
(e)ta merkatuko gurditxoetan
kalimotxo eta bokatak.

Kale guztiak
jendez beterik,
aurpegi irribarretsuak...
Bizi ditzagun inauteriak
ta ahaztu dezagun
krisia.

* Doinua: "Txantxibiri", Elorrioko kalean

Uribitakoran parte hartu gura duzu?
Bidal egiguzu atal honetan agertzea
gura zenukeen argazkia
eta bertan ikusiko duzu, bertso eta guzti!
uk@aldizkaria.biz



18. Korrika

> martxoaren 22an
zeharkatuko du
Uribe Kosta

Badator! Martxoaren 14an Andoainen hasi eta martxoaren 24an Baionan amaituko da euskararen aldeko lasterketarik ospetsuena. 18. biderrez, 11 egunez eta 10 gauzez, gelditu barik, Euskal Herriko hamaika herritatik pasako da Korrika. *Euskara eman elkarrri* da aurtengo leloa eta "euskalduntzen eta alfabetatzen ari diren milaka eta milaka pertsonak, Euskalakarri izateko ahaleginean euskara ikasten eta praktikatzen ari diren guztiak" omendu gura ditu. Uribe Kostara, oro har, martxoaren 22an helduko da: itsasadarra zeharkatuz Erandiotik sartuko da eguerdian eta eskualdeko ia herri danak agurtu ostean, arrastiko 17:00ak pasata, Laukizerantz abiatuko da (ordutegiak behin-behinekoak). Korrika aurretik, Korrika Kulturalaren barruan, ekitaldi andana (alboko zutabeen batzuk) antolatu dituzte AEK-ko kideek eta Korrika Batzordeek; Urdulizen otsailaren 22an egin zuten, Leioan eta Sopelan zehazteke dituzte. **Info+:** www.korrika.org ○



Itsasadarra zeharkatuz Erandion sartuko da Korrika 12:15ean eta Urduliz 17:15 aldera utziko du



Ekitaldiak

- **Martxoak 1, Erandio:**
-Eskualde mailako aurkezpena (azoka zaharra; 19:00)
- **Martxoak 4, Astrabudua:**
-Film laburren emanaldia (Kultur etxea; 19:30)
- **Martxoak 4-10, Algorta:**
-"Zuzeneko instanteak" erakusketa (Villamonte kultur etxean)
- **Martxoak 6, Algorta:**
-Aiora Erretereriaz musikaz solasaldia (Villamonte kultur etxean; 19:00)
- **Martxoak 7, Algorta:**
-ZZ blues band (Abian elkarte; 20:00)
- **Martxoak 8, Algorta:**
-Izaki gardenak (Piper's-ean; 21:00)
- **Martxoak 10, Plentzia:**
-Umeentzako tailerrak (17:00), helduentzako antzerkia (Elizako plaza; 19:00), ostean luntxa
- **Martxoak 14, Erandio:**
-Kantagunea (La Plaza tabernatik hasita; 19:30)
- **Martxoak 15, Erromo:**
-Triki-poteoa (20:00)
- **Martxoak 16, Erandio:**
-Afaria (Dandaka taberna)
- **Martxoak 16, Gorliz:**
-Umeentzako tailerrak (12:00), helduentzako antzerkia (frontoian; 19:00), eta gero luntxa
- **Martxoak 19, Erandio:**
-Antzerkia: *Pisukideak* (azoka zaharra; 20:00)
- **Martxoak 22, Gorliz:**
-Korrika pasa ondoren afaria (jubilatuen taberna; 22:00)

saiazgetaria



HOTELA

Roke Deuna 25
20808 Getaria
Gipuzkoa



...harria

...lehengo garaiak...

...itsasoa

www.siazgetaria.com / info@siazgetaria.com / Tf. (+34) 943 140 143

E!

**ERANDIO ELIZATEKO UDALA
EUSKARA ZERBITZUA**

**XII. IPUIN LEHIAKETA
ETA
V. BERTSOPAPER LEHIAKETA**

**2013
MMXIII**

Azken eguna: 2013ko martxoaren 22a

Informazioa: www.erandiokoeuskarazerbitzua.com

Babesleak:

**BFA
DFB**
Eusko Foru Alkandua
Diputación Foral de Bizkaia
Kultura Saila
Departamento de Cultura

**ELUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**
KULTURA SAIALA
Hizuntza Politikarako Bilkuratuordetza
DEPARTAMENTO DE CULTURA
Viceconsejería de Política Lingüística

2013

QR code
Dinarrak ikusteko eskaneatu kode
hau eskuko telefonoarekin



"Beti esan dut tren geltokiko arduradunek hanka bat kartzelan dugula"

Aurelio Intxaurtieta Olabarrieta > Trena galdu barik

Urdulizko 'La Estacion' tabernan jarri dugu hitzordua Aurelio Intxaurtieta, metro geltoki alboan. Ez da kasualitatea. Arrastiro bertan izaten da, bere bizilekua izan zenaren parean. Izan ere, Aurelio 1960. urtean bertako tren geltokiko arduradun legez beharrean hasi zen: "Lan gogorra zen, eskuz egiten genuen ia dana. Adibidez, trenbideko hesiak egurrezkoak ziren, eta euria egiten zuenean... kristoren pisua hartzen zuten!". Gainera, batzuetan hesiek pisu erantsia izaten zuten: "Umeak hesien puntan eskegitzen ziren, eta korrika joaten nintzen euren atzetik, kar-kar!". Umerez gogoratzen du Aureliok bertan ia 40 urtez bizitako hainbat pasadizo. Baina badira oroitzapen tristeak ere. 1970. urtean, berbarako, Uribe Kostako ezbehar ilunenetakoa gertatu zen: Urduliz eta Plentzia artean tren bik elkar jo zuten, 33 hildako eta zauritu ugari eraginez. Aurelio bajan zegoen, eta bere ordezkari, Juan Cruz Abandori, leporatu zioten errua: "Eguenetik domekara arte goizeko 5etatik gaueko 11ak arte lanean egon zen lotu barik, eta istripua domekan gertatu zen. Gainera, sistemak akatsa zuen". Abando kartzelara eroan, baina mobilizazioen ondorioz, 15 egunera askatu zuten: "Beti esan dut tren geltokiko arduradunek hanka bat kartzelan dugula. Abandok zaurituei bisita egin zien, baina istripuaren hirugarren urteurreneko bezperan hil zen, ezin izan zuen gertatutakoa gainditu".

Testua: **Julen Nafarrate** Argazkia: **Hodei Torres**

Aurrekontu proposamena

Udal-gobernu taldeak aurrekontu-proposamena **aurkeztu du**, **iaz baino %5,8 txikiagoa; lehentasuna** izango du **gizarte politikak**, eta **makroproiektuakaz** segituko dute, **inbertsioa geldotu arren**

2012an baino 6,1 milioi euro gitxiagoko aurrekontua proposatu du udal-gobernuak. Lehentasuna izango dute gizarte-politikak eta ekonomiaren dinamizazioak. Etxebizitza librerako partzelak salduko ditu udalak eta proiektu handien aldeko apustuari utsiko dio, inbertsioa geldotu arren. Murrizketek bereziki kultur eta aisialdiko hainbat ekitaldi eragingo diete.

“Aurrekontu zorrotz eta murriztaileak dira, errealtate gogorrera doituak”, iragarri zuen Imanol Landa Getxoko alkateak, 2013ko aurrekontu-proposamena aurkezterakoan. Aurten 99,3 milioi euroko aurrekontua proiektatu du EAJ-ren udal-gobernu taldeak, iazkoa baino 6,1 milioi euro gitxiago (%5,8) eta, osoko bilkuran bozkatu aurretik, gainontzeko alderdiakaz negoziatuko duela jakinarazi du.

Diru-sarreraren murrizketagaz lotu du aurrekontuaren gitxitzea alkateak: **“udaltasak eta zergak izoztu dira, Udalkutxatik jasotako dirua gitxitu da eta beste erakunde batzuen diru-laguntzak murriztu dira”**.

Arloka, honela zatitzen da aurrekontua: Gizarte-politikara bideratuko da ia 14 milioi euro (menpeko pertsonen artatzea, hezkuntza, garapenerako lankidetzak, berritasuna, e.a.); euskara, kultura, astia eta kirolerako 17,7 milioi euro; jarduera ekonomikoa sustatzeko 2,3 milioi, oinarritzko zerbitzuetarako 35 milioi, herritarrekiko komunikaziorako 2 milioi (HAB, parte-



Romoko kultur etxerako inbertsioa geldotu dute, baina proiektuagaz aurrera egingo dute

hartzea eta udal-hedabideak), proiektu estrategikoetarako 7,5 milioi (Getxo Antzokia, Areetako Geltokia plaza, Gobela ibaia egokitzea eta HAPN), zorrotzasan ekonomikoa eta kudeaketarako 19 milioi (udal-eraikinen mantenua, zorpetzea,

“%20ko murrizketa egingo dute Gazteria arloan eta euskara zein kultur elkarten laguntzetan”

langileen kudeaketa, zerga-kudeaketa eta diruzaintza, kontratazioa eta administrazioa, eta modernizazio teknologikoa); eta zehaztu gabeko gastuetarako beste 2 milioi euro.

Udal-gobernuak, era berean, aurrekontuaren murrizketak non eragingo duen gehien jakinarazi du. Kendutakoak di-

ra, besteak beste: Cinegourland, Getxo Sea Week edota Getxolandiako patinajepista. Eta murrizketak jasango dituzte jaiak, Kultur Etxeko jarduerak, Getxophoto, Euskal Kulturaren Jardunaldiak, ludotekak, udal-liburuxka eta aldizkariak, kultur-arteko eta immigrazio-arloko jarduerak, sasoiko loreak landatzeko eta elkarteentzako diru-laguntzek (Udalaren eskumeneko gizarte-zerbitzuakaz lotutakoak izan ezik). Ildo horretan, Udalak %20ko murrizketa jakinarazi du Gazteria arloan, eta euskara zein kultur eremuko elkarten laguntzetan. Jai Batzordeek, ordea, jakinarazi dute Udalak ez duela bere egingo beste hainbat zerbitzu eta, horrenbestez, jaietarako diru-partidaren murrizketa %35ekoa izan litekeela. ○

Info+: www.getxo.net

Getxon bizi, eta integratu

Tailerrak etorkinak integratzeko programan



Otsailean abiatu dituzte tailerrak

Bizilekua Getxon finkatu barri duten atzeritarrei zuzendutako programa da Getxon Bizi, eta horren helburua: **“beraien ongizate pertsonalean laguntzea, gizarte-osasuna eta udalerriko gizartean euren integrazioa sustatuz”**. Sei tailer eta urteera bat prestatu dute datozen hilotarako.

Tailerrak doakoak dira eta uztartuko dituzte: gizarte eta lan arloko prestakuntza eta gizarte-baliabideak, inguruaren eta harrera-gizartearen gaineko ezagutza.

Elikadura eta sukaldaritza tailerra otsailaren 24an, eta martxoaren 3an, 10ean, 17an eta 24an egingo dute. **Zaindu: besteak zaintzen dituztenentzako norberaren zainketa**, apirilean eta maiatzean, eta izena eman behar da martxoaren 25a baino lehen. **Komunikazio eraginkorra eta gatazken ebazpena** ekainean izango da eta

izen-emotea maiatzaren 20ra arte. **Gure artean** emakumeentzat da, eta ekainean eta uztailan egingo dute. **Maskulinitate barria**, ordea, gizonentzat da eta ekainaren 30ean egingo dute, eta, azkenik, **Internet eta neure jendeagaz komunikatzeko modu barriak** irailean eta urrian.

Igandeetan izango dira danak, 10:00etatik 14:00etara, eta izena emon behar da tailerra baino egun batzuk lehenago, Herritarren Arretarako Bulegoetan. Tailerrak egingo dituzte Romoko Ezekiel Agirre kaleko 21.ean, Algortako Gaztelekuan eta baliabide informatikoak dituen lokalean. Bestalde, urriaren 6an urteera gidatua egingo dute Bilbora eta irailaren 23tik aurrera emon behar da izena. ○

Info+: 94 466 01 51 eta inmigracion@getxo.net

MARTXOAK 8, BADAGO ZER ALDARRIKATU

Jarduerak eta mobilizazioak iragarri dituzte Emakumeen Nazioarteko Eguna dela-eta. Algortako Bilgune Feministak kontzentrazioa deitu du 20:00etarako Geltokia plazan, eta otsailaren 19tik aurrera, erakusketa ipiniko du Abian elkartearen. Itzurbaltzetako Emakumeen Asanbladak hitzaldia antolatu du martxoaren 6rako (**Emakumeon egoera lan munduan**) eta 8rako manifestazioa: 20:00etan Santa Eugenia plazatik. Azkenik, Udalak ere hainbat ekintza prestatu du. Martxoaren 6an, hitzaldia egongo da Villamonteko kultur etxean, 19:00etan: **Berdintasuna kirolean: aurrerapenak eta erronkak**. Hilaren 10ean, Emakumeen martxa izango da eta 10:00etan abiatuko da Algortako Geltokia plazatik. Azkenik, martxoaren 14an mahaingurua izango da eta 18an laburmetrai emanaldia.

GETXON EROSTEN DUTENENTZAKO SARIK

Getxo Enpresa eta Merkataritza elkarteak dendetan erosteagatik sariak eskuratu ahaliko dituzte bezeroek interneten: **Fidelity Point** da, puntuen programa. Txartelik ez da behar, puntuak zuzenean sakelako telefonoan pilatzen ditu bezeroak eta, gero, opariengatik truka daitezke interneten. Gainera, familia osoaren puntuak batzea dago eta ez dira iraungiko.

Info+: getxoempresarialycomercial.com

11 URTE LUZATU DIOTE ZIGORRA IÑAKI GONZALO ROMOKO PRESOARI

1994ko urrian atxilotu zuten Romoko Iñaki Gonzalo Casal **Kitxu** eta 19 urte daroa preso. Zigorra beteta maiatzaren 4an urten behar zuen espetxetik, baina 197/2006 doktrina ezarri diote, Parot Doktrina gisa ezaguna, horrenbestez, beste 11 urte luzatu diote zigorra. Romoko auzotarrek mobilizazioa egin zuten otsailaren 15ean auzitegiaren erabakia salatu eta **Kitxuren** askatasuna eskatzeko. Egun, Valladolideko espetxean dago **Kitxu**.



Beherapenak

arropa salgai 12 eta 50 euro bitartean

Ibaiondo 7, 48930 Erromo-Getxo Tf. 94 656 21 57

Gaizka Pereda Llaguno > DJ-ikastaroa antzerki-eskolan

“Gero eta gehiago zabaltzen ari da kalean ikuskizuna egitea, norbere bozgorailuakaz”



Info+: www.escueladeteatrodegetxo.com

DJ-ikastaroa emongo du Gaizka Pereda Llagunok Utopian Getxoko Antzerki-Eskolan, martxotik aurrera. Jaiotzez ondarrutarra da Pereda, baina 25 urtez bizi izan da Algortan eta, gaur egun, Bilbon. Soinu-teknikaria da eta 2000.ean hasi zen DJ, herriko taberna batean. Ordutik kolaborazio asko egin du abeslari ezagunakaz, euskaldunak zein atzerritarrek: Afrika, Sorkun, La Kinky Beat, Maria de Medeiros, Lizz Wright eta abar. Argi dago zaletasuna baino gehiago dela musikaren mundua Peredarentzat: seguruenera, pasio eta bizimodu.

—Lauko taldeetan emongo duzu ikastaroa, zergatik hain jende gitxi?

—Lau laguneko lau talde izango dira. Era berean, binaka banatuko ditut nik gela desberdinetan. Zergatik? Bakoitza musika ipintzen egongo delako eta kontzentratuta egon behar dute. Lau bozgorailu lau kanta desberdineguz aldi berean, zorarena litzateke. 20 orduko ikastaroa izango da eta hainbat arlo landuko dut.

—Hastapen mailatik hasiko zara?

—Hori da, formato eta tresna edo gailu desberdinak ikusiko ditugu: batzuk beha-

rezkoak, besteak osagarriak. Beharrezkoak dira mahaia, platera eta kaskoak. Osagarriak, barriz, *sampler* eta antzekoak: gero eta gehiago erabiltzen dira efektu unitateak, eta hainbat adibide ezagutuko ditugu. Ikastaroa ez dut emongo biniloakaz eta, horrenbestez, etxetik ekarriko ditut nire platerak.

—Zelan emongo duzu orduan?

—Oso modan dauden kontroladoreakaz: mahaitxo itxura daukate, botoiakaz; ordenagailuagaz kontrolatzen dira kantak. Gurpilak txikiagoak dira lehengo platera-

kaz alderatuta. Efektua lor daiteke, baina *scratch*-a irakatsiko dudanean nire platerak eroango ditut, antzinako modura egiten irakasteko. Izan ere, gaur egun, oraindino erabiltzen da eta jakin behar da zer pisu eta kalibrazio ipini, neurri desberdinak daudelako, gero orratzak saltorik ez egin eta biniloak ez apurtzeko.

«Espero dut 2013 honetan gauza propioren bat atera ahal izatea»

—Asko zabaldu dira DJ-ikuskizunak Euskal Herrian?

—Bai, gero eta gehiago. Euskal jaietan ere ari dira sartzen, jaialdietan. Duela hamar urte ez ginen hain ezagunak eta gaur egun normalizatuago dago hau dana. Belaunaldi barriak hurreratzen ari dira. Bide asko dago. Hasi dira hedatzen Sound System-ak, baina norberak ere egin dezake: norbere bozgorailuakaz bakarrik egin daiteke ikuskizuna kalean. Kultura hori gero eta gehiago zabaltzen ari da: zure bozgorailuakaz ipini kalean, zelaian, e.a.

—Zer musika estiloz lan egiten duzu?

—Normalean *Drum & Bass* Ingalaterran jaiotako estiloagaz. Baita reggae eta hip-hop-agaz ere. Jamaikatik dator hau dana, 50eko urteetan hasi ziren lehen DJ-ak.

—Kolaborazio asko egin duzu DJ gisa, zelan hasi zinen honetan?

—Lagun batek ekarri zuen aparatu bat Londresetik eta liluratu ninduen. Apurka hasi nintzen eta kolaborazio asko egin dut, bai. Oso zaila da honetaz bizitzea, oso altruista da eta zaletasunez egiten da; eta kolaborazioen mundua oso polita da: Ingalaterra eta Bartzelonako hainbateguz nabil. Eta orain gogoia daukat zerbait gehiago egiteko: espero dut 2013an nire gauza propioren bat atera ahal izatea. ○

Nire gorputza eta erabakia

Bertso-paper lehiaketa abian, emakumeen erabakitzeko eskubidea hizpide



Lehiaketa iragartzen duen kartelaren irudia

Emakumeak bere gorputzaren eta sexualitatearen inguruan askatasunez erabakitzeko eskubidea eta haren errespetua aldarrikatuko du Getxoko bertso-paper lehiaketak. Bizkaiko Medicusmundi elkarteak antolatu du lehiaketa, ALBE Algortako bertso-eskolaren eta Getxoko Udalaren laguntzagaz.

Nire gorputza, nire sexualitatea lema aukeratu dute lehiaketaren gai gisa, eta bertsoak aurkez daitezke martxoaren 17-ra arte. Antolatzaileek nabarmendu dute giza-eskubideak urratzen dituzten ekin-tza ugari dagoela, hala nola: gura bako haurdunaldiak, sexu-transmisioko infek-

zioak, abortu arriskutsuak, genero-indarkeria edota bereizkeria orientazio sexualagatik. Aldiz, “*pertsona orok dauzka sexu eta ugalketa-eskubideak: seme-alabak eta sexu-harremanak nogaz, noiz eta zelan izan erabakitzeko*”.

Lehiaketa honetan parte har dezakete Getxon jaio, lan egin, ikasi edo bizi diren pertsona guztiek, eta bakoitzak gura adina bertso-sorta bidal dezake Bizkaiko Medicusmundi elkartera: Begoñako Andra Mari kalea, 20 behe. 48006 Bilbo. Datorren apirilaren 12an banatuko dituzte sariak bertso-afari batean, Algortako San Nikolas ikastolan. ○

GAZTA AZOKA ALGORTAN MARTXOAREN 8TIK 10ERA

Aurreratu dute aurten Algortako Gazta Azoka eta martxoaren 8tik 10era bitartean egingo dute, ohi legez, Geltokia plazan. Urtero legez, behi, ahuntz eta ardi esnez egindako gaztak dastatu eta erosi ahalko dira, Euskal Herrikoak batzuk, kanpokoak besteak: Idiazabal eta Erronkari motakoakaz batera probatu ahalko dira Frantzia, Suitza, Herrialde Katalanak eta abarretako gaztak; ia 20 postu ipiniko dute. Ordutegi zabala egongo da: goizez 11:00etatik 14:30era bisitatu ahalko dira postuak eta, arrastiz, 17:00etatik 21:30era. Bertan eskuratu ahalko dira gazta mota danak, baita dastatu ere! Daborduko iritsiko zitzaizun sudurrera jakion lurrin gozoa. Adi eta bizkor ibili, hurreratu Geltokia plazara saguek dana jan baino lehen!

BAPIRKE KOLONIETAN IZENA EMON DAITEKE

Bapiruke Aste Santuko kolonietan izena emon dezakete 5 eta 12 urte bitarteko umeek: Bizarra Lepoan elkarteko bazkideek martxoaren 4tik 6ra eta bazkide ez direnek 11tik 13ra, elkarrearen bulegoan (Martikoena, 16). Koloniak Algortako Zabala eta Romoko eskolatan egingo dituzte, martxoaren 25etik apirilaren 5era. Bazkideek 30 euro ordainduko dute, bazkide ez direnek 50 euro eta gitxieneko errenta jasotzen dutenek 10 euro.

Info+: 94 491 03 87 eta www.bizarralepoan.org

KONTZERTU KLASIKOAK MARTXOAN, AREETAN

Kontzertu klasiko sorta eskainiko dute martxoan Areetako Andres Isasi Musika Eskolan, hiru zapatutan. Hilaren 2an Fretwork Quintet biola taldea arituko da; 9an Anda-Louise Bogza sopranoak eta Adam Skoumal pianistak eskainiko dute kontzertua; eta 16an Miguel Ituarte pianistak. Saioak 19:30ean hasiko dira eta sarrerak 8 euro balio du; hiru saioetarako abonua, barriz, 20 euro balio du.

lagusana
liburuak eta letra txikia

Basagoiti etorbidea 59
(Tellagorri plaza)
48991 ALGORTA
Tf. 94 491 14 12
gusanalibreria@gmail.com

Jesus Lizaso Gonzalez > eskultorea

“Ez da obra ulertu behar: oso gustuko izan baduzu ezingo duzu burutik kendu”

Jesus Lizaso Gonzalez basauritarraren *Ortotropias* eskultura-erakusketa lehenengoz ikus daiteke Euskal Herrian, non eta Kultur Leioan. Lan batzuk erakutsi zituen 2011n Florentziako Nazioarteko Arte Azokan, baita Urrezko Domina irabazi ere.

—Zer da ortotropia?

—Nire ametsen eta materialaren deformazioa: haregaz hitz egitea eta berak jaramon egitea. Materiala geldia da eta bizitza emon behar zaio, elkarregaz biziz. Forma lantzen dut edo, hobeto esanda, deformazioa; eta bertan topatzen duzu mugimendua, gozoa eta, batez ere, plastikotasuna. Izan ere, txikikatik erakarri nau plastikotasunak eta adierazteko moduak.

—Material naturala eta tratatu bakoagaz lan egitea garrantzitsua ei da, zergatik?

—Gustuko dut material naturala erabiltzea, zuhaitz zati bat hartzea eta barruan daukana ataratztea. Artisautzaren muinetik nator eta sekula ezingo dut ahaztu artisau ofizioaren jatorria; azken batean, lengoia modu bat da, adierazteko modua, eta gehiago asebetetzen nau; izan ere, lana bere osotasunean lantzen dut, hasiera-hasieratik.

—Kuboa landu duzu barriro?



Kultur Leioan ikus daiteke *Ortotropias* erakusketa apirilaren 7ra arte

—Aurrekoetan erabili izan dut, piezen gainean beti zegoen kubo bat. Lan kontzeptualak ziren; ez ziren errealistak, baina bai figuratiboak. Beraz, asko kostatu zitzaidan kontzeptu horiek gaintzea, forma bera lantzea, eta horregaz bakarrik asetzea, ezer irudikatu behar ez izatea.

—Bisitariak antzekotasunak bilatuko ditu egunerokotasunagaz?

—Ez, nire ustez, bisitarien buruan sartuta, beraiek beste gauza ikusiko genuke,

bakoitzak gauza bat irudikatuko lukeelako. Ni oso sinplea naiz, nahikoa dut gustuko formak lortzeagaz. Batzuetan zailagoa da soiltasuna lortzea. Ez da obra ulertu behar: oso gustuko izan baduzu ezingo duzu burutik kendu. Lehenengoz erakutsiko ditut lan hauek Euskadin eta oso pozik nago Leioan delako: kultura aldeetik herri aberatsa da eta gune oso polita dauka erakusketetarako. Beraz, nire ekarpena egitera nator. ○

Gazteak eta lonjak

“Segurtasuna eta bizikidetzaren hobetzeko” proiektua abiatu du Udalak



Info+: www.leioa.net

“Gazteen lonjen bizikidetzaren eta segurtasunaren hobetzeko proiektua” abiatu du Udalak. Helburua da gune horiek “erabiltzen dituztenen errealitate hurbiltzea eta, horretarako, udal zerbitzuak lan egingo dugu”, baita lan-esparrua gazterian daukaten eragileak ere.

Lehenik eta behin, ikastetxeetara hurbilduko da Udala, nora eta ondoko mailetako ikasleak daukatenak: DBHko 3. eta 4. mailak, Batxilergoa, Hastapeneko Lanbide Heziketa, Helduen Heziketa, Erdi eta Goi Mailako Heziketa Zikloak. Inkesta egingo dute euren artean, eta gai hauei buruz galdetu die: aisialdiko ekintzak, eskolaz kanpoko ekintzak, garatu gura lituzke-

ten ekimenak eta gazteen lonjen erabilera.

Horren ostean, Aterpe gazteguneko erabiltzaileei egingo diete inkesta bera, euren aisialdian zer egiten duten jakiteko. Gainera, lonjetara hurbilduko da gazteak zuzenean elkarriketatzeko, baita segurtasun eta bizikidetzari buruzko informazioa jasotzeko ere: “*kale lana beharrezkoa da lonjetan dauden gazte danengana heldu abal izateko*”.

Lan horregaz lonjen egoeraren argakia lortu gura du Udalak, baita Leioan bizi diren 14 eta 30 urte bitarteko ikasleentzako aisialdiari buruzko diagnostikoa osatu ere. Hurrengo urratsak zeintzuk izango diren, oraindino ez du argitu. ○

MARTXOAREN 8AN MOBILIZAZIOAK

Emakumeen Nazioarteko Eguna dela-eta ekimenak eta mobilizazioak iragarri dituzte Leioako emakume-taldeek. Bilgune Feministak mahaingurua eta argazki-lehiaketa antolatu ditu. Mahaingurua martxoaren 7an izango da, 19:30ean, Sakoneta kiroldegian. Lehiaketarako, barriz, irudiak bidal daitezke hilaren 5era arte: leioakobilgunefeminista@hotmail.com. Martxoaren 8an erakutsiko dituzte Bulebarren, arrastian, eta kontzentrazioa egingo dute 20:00etan; amaieran, poteoa egingo dute. Bestalde, Andrak elkarteak ere hainbat ekimen eta mobilizazio antolatzen ditu urtero, beraz adi ibili beharko duzu deialdiatar.

POP-ROCK LEHIAKETAN PARTE HARTZEA

Abiatu du Leioako XIII. Pop-Rock lehiaketa Udako Kultura eta Gazteria sailak. Horrenbestez, bidal daitezke daboruko maketak edo CDak, hemendik eta apirilaren 15era. Haregaz batera, izen-emote orria bete behar da eta, taldean 18 urtetik beherako kiderik izanez gero, guraso edo tutorearen baimena aurkeztu beharko du. Maketak Aterpe gaztegunera eroan behar dira (Aldapabarrena, 2) edo postaz bidali, helbide berera.

Info+: www.kulturleioa.com, 94 405 58 50 eta gazte@leioa.net

KANTIKAREN EMANALDIA MARTXOAREN 10EAN

Leioa Kantika Koralk Vampirabile ikuskizuna eskainiko du martxoaren 10ean Kultur Leioan, 18:00etan eta 20:00etan. Karmina Šilec zuzendariaren proiektua da, talde bigaz aurretik egindako lan gogorraren emaitza: mitoak, kondairak, sorginkeriak, araoak tartekatzen dira argiz eta musikaz betetako proposamen koreografikoan. Irudi misteriosuz lepo dagoen ikuskizun parebakoa dela ziurtatu dute. Sarrerak 5 euro balio du.


MR TALLER MECANICO
Coches, Motores Marinos y Fuerabordas
Mota guzietako konponketak: Azterketak, Gurpilak, Indargelzaleak, Soinua...
Tf. 94 430 17 81
Bidezabal Kalea 7
48993 GETXO

BIZKAIA
irratia

BIZKAIA IRRATIA Uribe Kostan

F.M. 102.6 Mhz

www.bizkaiairratia.com



Aktualitatearen alde ezberdinak konbinatuko dizkizugu astero

ARGIA. Kalitatezko prentsa independentea

Jaso ezazu Euskal Herriko astekaria hilabetez **doan!**
sustapena@argia.com · 943 37 15 45

[erandio]

David Fernandez Guantes > txinatar boxeoa praktikatzen du

“Txinara bidaiaren ostean, benetako kung fu-a erakusten hasi gura dugu hemen”

Txinako boxeoa praktikatzen du David Fernandez Guantesek eta beste lagun bik. Hirugarrenez joango dira laster Txinara ikasten jarraitzeko eta, era berean, kirol honi buruzko dokumentala grabatzeko. Hainbat diziplina batzen du txinatar boxeoa: tai chi, kung fu, e.a.

—Kung fu Wudang praktikatzen duzu?
—Beno, egia esan, kung fu hitzak ez dauka zerikusirik arte martzialakaz; itzulpena ez da egokia: Txinan erabiltzen da ondo egindako lana izendatzeko. Guk egiten duguna txinatar boxeoa da, eta hainbat diziplina batzen du: kung fu, yoga, tai chi, e.a. Danetik egiten dugu eta gehien ezagutzen dugun estiloa da Wudang, kung fu estilo asko dago-eta.

—Zeintzuk zarete?

—Daobaxian elkartearen osatzen dugu anaiak, lagun batek eta hirurok, eta boxeoa txinatarraren egiten dugu.

—Euskal Herria txiki lotu zaizue?

—Ez, beste diziplinetan ere gertatzen den moduan, modan ipintzen dira eta jende asko hasten da klaseak emoten, baina nahikoa maila izan barik. Gure mailako irakaslerik ez dago hemen eta horregatik joaten gara Txinara. Nahiko maila ona daukagu eta, martxoko bidaiaren ostean, benetako kung fu erakusten hasi gura dugu; izan ere, hemen egiten denak ez dauka antzik kung fu-agaz.



Daobaxian elkartearen osatzen dute Fernandezek eta bere lagun bik

—Hilabete zozte Txinara?

—Hori da, eskola batera entrenatzera goaz. Ordu asko praktikatzen dugu, goizeko 6:00etatik gaueko 00:00etara. Etekin handia ateratzen diogu: han hilabete-ko entrenamendua hemen hamar urte entrenatzea bezala da eta, gainera, irakaslerik onenakaz; horretarako aukerarik ez daukagu hemen. Bueltan erakusten hasi-

ko gara zertan aritzen garen, jende askok egin dezakeelako kirol hau.

—Aurten, gainera, dokumentala grabatuko duzue?

—Bai, asmoa da ikusaraztea zer den hori, gure herrian kung fu-aren egoera zertan den erakustea, eta gure elkartearen ezagutzera emotea. Beraz, oso lanpetuta ibiliko gara, entrenatzen jarraituko dugulako dokumentala grabatu bitartean, baina mereziko du: ahalik eta etekinik handiena atera behar diogu bidaiari. ○

Herria txikitatik ezagutzuz

Eskolagaz eta **familian, txikiek herriko arkitektura** ezagutzeko **ibilbideak** prest!



Info+: enplegua@erandioko-udala.net eta 94 417 56 16

Herriko ondare arkitektonikoa ezagutzera emateko eta turismoa sustatzeko egitasmoa abiatu du Erandioko Behargintzak, umeei zuzenduta, familiagaz edota ikastetxeagaz egiteko: *Erandioko historia eta kultura-ondarea ezagutzeko ibilbideak* da programaren izena.

Umeentzako material didaktikoa eta ludikoa prestatu dute, adin tarteka sailkatuta, eta sei ibilbide desberdin egiteko aukera dago Altzaga, Astrabudua eta Lutxana-Enekuri auzoetan.

Hiru adin tartetan banatu dituzte: 5 eta 7 urte bitarteko umeei zuzenduta daude *Ametsetako eraikinak* ibilbidea Al-

tzagan eta *Imajinazioa lantzeko tokiak* Astrabuduan; 8 eta 10 urte bitartekoei *Hiria ezagutzeko modu magikoak* Altzagan eta *Hiri misteriotsuaren xarma* Lutxana-Enekurir; 11 eta 13 urte bitartekoei *Arkitektura eta diseinua* Altzagan eta *Arkitektura bizia* Astrabuduan.

Ibilbideak euskaraz zein gaztelaraz egin daitezke, audio-gida batek emongo ditu azalpenak eta mapa baten laguntza ere egongo da. Gainera, umeei betetzeko fitxak ere prestatu dituzte, ikusitakoak buruan gordetzen laguntzeko. Erandioko Behargintza Altzaga auzoan dago, Bekoa ikastetxean (Desanexioa, 4). ○

KORRIKA HILAREN 1EAN AURKEZTUKO DUTE

18. Korrika eskualde mailan aurkeztuko dute martxoaren 1ean, eta Erandio aukeratu dute ekitaldirako: Altzagako azoka zaharrean izango da, 19:00etan. Ez dira faltako bertsoak, musika, dantza eta, orokorrean, jai-giroa. Eta hasiera besterik ez da, izan ere, Korrika-Batzordeak herriz herri batzen hasiak dira eta hainbat ekitaldi prestatuko dute Korrikagaz lotuta. Martxoaren 22an helduko da euskararen aldeko AEK-ren lasterketa Uribe Kostara: eguerdian sartuko da Erandion eta eskualde osoa zeharkatuko du. Hilaren 14an hasiko da Korrika Andoainean eta 24an amaituko da Baionan, Euskal Herrian barna 2.580 kilometro egin ostean.

Info+: www.korrika.org

ES UNA NIÑA ANTZERKIA ASTRABUDUAN

Martxoaren 2an antzeztuko du Es una niña obra Aztiak antzerki-taldeak Astrabuduko kultur etxean. Sarrera bakoitzak 2 euro balio du eta daborduko eros daitezke han bertan, baita udaletxeko Kultura sailean. Emanaldia 20:00etan hasiko da: “Hiru emakume txiro kalean dabilta noraezean, hiru adiskide dira, hiru arima alderri, ardoa eta pastillak lagun. Ustebako gertakari baten ondorioz, desagertze arraro baten erruduntzat joko dituzte”. Aristokrata batek eta bere neskaimeak osatzen dute istorioaren haria.

BEGIRALEEN ETA ETXEZ ETXEKO LANGILEEN ERROLDA BARRIA

Aisialdiko begiraleen eta etxetzeko laguntzaileen errolda osatu barri du Udalak. Izan ere, Behargintzak kiroldegi, zahar-etxe, eguneko egoitza, ludoteka eta antzeko udal-zerbitzuak eskaintzen dituzten enpresetan jardun ahaliko duten pertsonen zerrenda eguneratu gura izan du. Hau da, eremu horietako langile diren erandioztarren erregistroa eguneratu dute.

Info+: www.erandio.net

Luberr Basolanak, SL
Axpe ibaiertza 28A
beheko solairua B12 lokala
Erandio (Bizkaia)

Mugikorra: 629 41 18 38
Tf :94 467 17 13
Faxa: 94 467 42 41
luberr@euskalnet.net
www.luberr.biz

- Soropila ezartzea
Lurzorua prestatzeko lanak, dreinatze lanak, ureztatze sistema ezartzea, funtsezko ongarrizte lanak eta ereite lanak.
- Seropila zaintzea eta mantentzea
Moztea, ureztatzea, ongarriztea, egurastea, aratzea eta destrinkotzea, berrelikatzea, soropil gaitzak eta belar gaiztoak tratatzea.
- Inausketak
Hazteko, mantentzeko, berritzeko, zuhaixka apaingarriak inaustea, erabateko inausketak.
- Barrukaldeak lorategi bihurtzea

Binilo apaingarria

Diseinatu zure lekua biniloarekin apainduz

Biniloaren tamaina: 43 x 58 zm
6 eredu ezberdin
Espatula dohainik

Eredu gehiago ikusteko, gure binilo katalogoa eskatu

BAKARRIK

19,90 €

BEZ BARNE

global printers
applications + business

Villa de Plentzia, 6
GETXO
Gobela metro
geltokiaren ondoan

OTSAILAREN 28AN LAGUNTZAK ESKATZEKO EPEA BUKATUKO DA

Otsailaren 28ra arte OHZaren gaineko zerga eta zabor eta estolderiaren tasak ordaintzeko laguntzak eskatzeko epea bukatuko da. Laguntza hau errenta baxua duten familiei zuzenduta dago; langabeak, pentsionistak... Finantziatu daitezkeen kontzeptuen artean, besteak beste, OHZ zergaren %75 edota zabor eta estolderia tasen %50 izango da. Diru-laguntzak jasotzeko, Sopelako herrian erroldatuta egon behar da, gainera, ezin da beste etxebizitza baten jabe izan, ezta gauza beragatik diru-laguntzarik ere jaso. Diru-laguntzak eskuratzeko orri-eskariak Sopelaren aurkeztu beharko dira.

KICKBOXING, K-1 ETA MUAY-KO EUSKADIKO TXAPELKETA

Martxoaren 16an Udal frontoiak Euskadiko Kickboxing, K-1 eta Muay Thai txapelketak hartuko ditu. Goizeko 11:00etatik aurrera hasiko dira lehiak bi mailatan; alde batetik, A maila, baten baino gehiagotan lehiatu diren parte-hartzaileekin; beste alde batetik, B maila, inoiz lehiatu ez diren borrokalariak. Pisu bakoitzeko kategorian garaitzen dutenek Estatuko txapelketan parte hartu ahaliko dute; horrek dakarren gastu guztiak ere ordainduta izango ditu. Euskadiko txapelketa honetan 20 elkarteko 120 kirolarik inguru parte hartuko du. Borroka lehiaketak ikusteko 10 euro ordaindu beharko dira.

ITZARTUREN PINTURA LEHIAKETA

Itzartu emakumeen taldeak antolatuta, aurten ere, pintura lehiaketa abiatuko da. Lanak aurkezteko epea martxoaren 1etik 6ra izango da Kurtzio Kultur Etxean. Obrak oleo edo akuarelan margotu daitezke eta gaia librea da. Hortaz, zure gaitasun artistikoa erakutsi gura izanez gero, hortxe aukera!

Herritarren aurrekontua 2013ko udal-aurrekontua osatzeko parte- hartze prozesuaren emaitzak eskuragai



Irisingarritasuna hobetzeko egitasmoen artean, espaloiak konpontzea lehenetsi dute

Sopeloztarren parte-hartze prozesua amaitutzat jo, eta prozesu horrek ekarritako emaitzak kaleratu barri dituzte. Guztira prozesuan 252 pertsona inguruk parte hartu zuen, inkesta betetzen, eta horienak dira, hain zuzen, ondorengo lerrootan aditzera emango ditugun beharrezkoen gaineko iritziak. Inkestan, herritarrei ondare-inbertsioen gaineko lehentasunak adieraz zitatzela eskatu zieten, eta eguneko zentroaren egitasmoa izan zen babes handien lortu zuena, bigarrenik, Zipiriñen azpiegiturak hobetzeko egitasmoa izan da babes-

tuena, eta ondoren liburutegi barrirako lanak. Bestalde, herritarren %62,7k inbertsioak mantentzea lehenesten du, eta %28,17k ekintzak eta diru-laguntzak lehenesten ditu. Proposatutako irisingarritasuna hobetzeko egitasmoen artean, sopeloztarrek garrantzi handiena eman diote espaloiak konpontzeko egitasmoari, ostean, Ander Deuna ikastolako bidegorririari. Horrez gainera, inkestan, ekonomia eta enplegua sustatzeko lehentasunen artean, sopeloztarrek ekintzaileena sustatzea gura dute, eta ondoren, etxebizitza hutsen alokairua sustatzea. ○

Sopelako emakume gazteen asanblada > berdintasunera
“Geure buruari eragin behar diogula uste dugu, eta formazioari ekin diogu”



Herrian gertatu ziren erasoari erantzuteko batu ziren

Iaz Sopelako emakume gazteak batu, eta antolatzen hasi ziren, emakume gazteen asanblada osatzeko. Gu haiekaz solastu gara, gaiaren inguruan gehiago jakiteko asmoagaz.

—Noiz sortu zenuten taldea? Zergatik?
—Maiatz aldera herrian emakumeen aurkako erasoak gertatu ziren. Horren aurrean hainbat herritar batu ginen egoera horri erantzun nahian. Pertsonak sistema patriarkalaren eraginez jasaten ditugun zapalketen inguruan hausnartzeko eta errealitate horrekin bukatzeko ekimenak abiatzeko.

—Zein izan da orain arteko zuen ildoak?
—Autogestioan oinarritzen den asanblarismoaren bidez hartzen ditugu erabakiak. Gure buruari eragin behar diogula uste dugunez, formazioari ekin diogu. Izan ere, sistema patriarkal erabaki du indarkeria mota batzuk delitua direla. Hori horrela izanda, delitua ez diren erasoak onartzen ikasi dugu, hauek antzematen zailenak izanik.

Hau lantzeko, hainbat borroka burutuko ditugu. Ekintza zuzenean sinesten dugunez, milaka dira kalean egingo ditugun tailer, aldarrikapen, eta salaketak.

—Martxoaren 8a hurbiltzen ari da, zer pentsatu duzue egun horretarako?
—Otsailaren 18an Sopelako asanblada feminista egon zen herrian. Lehenengo ekimenen artean, martxoaren 8ko astean, gaztetxearekin koordinatuko ditugu; horrela, hitzaldi, tailer, eta hainbat tertulia, aldarrikapen eta salaketa.

«**Martxoaren 8an hitzaldi, tailer, eta aldarrikapenak egingo ditugu**»

—Zein da emakume gazteek bizi duzuen egoera?

—Sistema kapitalista eta patriarkal honen etengabe inposatzen digu gure bizierdua. Generoaren eraikuntzaren bitartez jarrerak mugatzen dira. Ezarritako dagoen bidea jarraitu ezean, diskriminazioak pairatzen ditugu.○

DIDAK hAMILTON IDIOMAS

Ingelesa, Frantsesa eta Alemana

- Taldeak, enpresak eta partikularrak
 - Eskolaz kanpoko ekintzak
 - Maila guztiak
- Ingelesa 3 urtetik aurrera
 - Talde txikiak
- Ingalaterran egonaldiak

Dr. Landa 6 eta Iberre 9 / 48600 Sopela.
Tf. 94 676 30 12
info@didakhamilton.com

ANDER DEVNA IKASTOLA

- Hezkuntza integrala urte 1etik 18ra artekoa
- Irakaskuntza eta hezkuntza
- Informazioa eta partaidetza
- Eleaniztasuna
- Esperientzia eta barrikuntza

Gatzarrine z.g. SOPELA
Tf. 94 676 02 66

Email: sopela@ikastola.net

OINUTSIK KONTSULTA PODOLOGIKOA Nahia Andrés Bilbao (nº col. 236)

Zubigane 4
48600 Sopelana
Tf. 94 404 74 20
CITA PREVIA
oinutsik@euskaltel.net



OINAK DITUZU
ONGIZATEAREN
ZUTABE, OINEZ
EDONORA HEL
ZAITZKE!!

Cerca de la salida del metro (a 150 metros). En el mismo edificio de Correos, a la vuelta de Santiveri.

Hirik
Gosariak,
Pintxoak,
Giro eta musika onena
ONGI ETORRI!!
Bentaxu 2 Tf. 94 676 03 28 SOPELA

EGUNKARIAK

prentsa eta aldizkariak

gura izanez gero,
etxera eroango dizugu
egunkaria!!!

Algortako etorbidea 78
Tf. 94 491 27 34

Endika Brea > zinemagilea

“Voice Over filmean parte hartzea, baita ostekoa ere sekulakoa izan da; nire bizitzako onenetakoa”

Endika Brea gazteak 5 urte inguru daramatza zinemagintza munduan. Berak parte hartutako azken lanak, baina, sekulako arrakasta izan du mundu-mailan ere; hala, Voice Over film laburra hainbat zinema jaialditarako nominatu dute, baita Goya sarietarako ere.

—Zein izan da zure lana Voice Over film laburrean, zertan aritu zara?

—Skript lanak egin ditut Voice Over film laburrean; skript lana zera da: eszena arteko jarraikortasuna gordetzea, racor akatsak ez egoteko, besteak beste, hutsak deitzen ditugunak egon ez daitezen.

—Zure lehenengo lana izan da?

—Ez, ez da nire lehen lan izan; izan ere, aurretik beste lanetan ibili naiz, bost urte daramatzat-eta mundu honetan. Esperientzia izugarria izan da, amets hutsa. Film laburra egin ostekoa ere harrigarria izan da, nominazio ugari izan ditugu; gainera, munduko jaialdi ugarietan egon da New Yorken, Chicagon, Frantzian, Monakon... Monakon, berbarako film laburrik onenaren saria irabazi genuen. Bestalde, Donostian film labur onenaren saria lortu genuen, film laburrean jaialdian. Goyetarako nominatu gaituzte... Zalantza barik, film labur horretan lan egitea nire bizitzan ger-



Voice Over film laburreko zuzendaria Martin Rosete zinemagilea izan da

tatu zaidan gauzarik onenetakoa izan da.

—Zein da filmaren gai-ildo nagusia?

—Filmak 10 minutu irauten du, eta denbora horretan 3 istorio agertzen dira, eta azkenean, 3 istorio horiek bat egiten dute. Istoriotako pertsonaiek ez dute hitz egiten, baina narratzaile batek, kanpo ahots batek kontatzen du zer gertatzen zaien protagonistei.

—Hemendik aurrera, zer?

—Bada, egia esan, mundu honetan jar-

dun nahi dut; horregatik ingelesa ondo jakitea ezinbestekoa dut. Orain, beste proiektu bat daukat esku artean, beste film labur bat, eta horretan zuzendari laguntzaile nabil, lan horretan ere Alex Angulo aktore da; profesional handiekin ari gara. Gainera, esan behar dut Voice Over filman asko ikasi nuela Manuel Calvo zuzendari laguntzailearengandik, eta horrek lanean hobetzen eta lanean jarraitzen lagundu dit.○

Estibaliz Anitua > Mankomunitateko berdintasun-teknikaria

“Krisia nabaritu arren, gure ekimenei eusten saiatuko gara”



Mankomunitateko ikastetxeetan eskainitako ikastaroek harrera ona daukate

Krisiak krisi eta murrizketak murrizketa, berdintasuna sustatzeko ekinbideak aurrera darrai, eta aurten ere, Mankomunitatean aterako denaren inguruan jakin gura izan dugu; hori dela eta, Mankomunitateko berdintasun-teknikariagaz berba egin dugu.

—Martxoaren 8an, zer izango da?

—Hainbat gauza daude; baina gure helburua, urtero legez, martxoaren 8a kirolagaz lotzea da. Horregatik, kirol-ekin-tzak izango dira; alde batetik, Gorkizetik Urdulizera martxa izango da martxoaren 10ean; beste aldetik, egunean bertan, Berangoko txirrindularitza taldea Urdulizera abiatuko da. Eta Urdulizen, emakumezkoen eskubaloi-partidak jokatu dira, ondoren, bertan, luntxa eta ekitalditxoak izango dira. Horrez gainera, martxoaren 8an, Emakumearen Egunean, hainbat ekimen izango dira herriz herri. Horrez gain, gazteei zuzenduta, argazki-

lehiaketa antolatzeke asmoa daukagu, gaia emakumea eta kirola dela.

—Krisiak eraginik izango du urteko ekimenetan?

—Bai, nabarituriko dugu, baina gure asmoa zera da: orain arte egindako eskaintza mantentzea. Horrenbestez, moldaketaren bat egin arren, pasa den usteko eskaintzaren antzekoa izango da aurtengoa.

—Zeintzuk dira aurten egitea aurreikusi dituzuen eskaintzak?

—Betikoak mantenduko dira; Martxoaren 8a eta Azaroaren 25ekoa da jendeari begira egiten diren ekimenak. Bestalde, barruko lana egiten jarraituko dugu. Hori gutxi balitz, ikastetxeetan ikastaroak eskaintzen jarraituko dugu.○



AIXERROTA BHI

- TEKNOLOGIKOA
- BATXILERGOAK
- NATUR ETA OSASUN ZIENTZIAK
- GIZA ETA GIZARTE ZIENTZIAK

DERRIGORREZKO BIGARREN HEZKUNTZA (DBH) B ETA D EREDUAK

ZEREGINAK IKASTEKO GELA (A ETA D EREDUAK)



INFORMAZIO GEHIAGO: WWW.AIXERROTABHI.NET / TF. 94 491 17 86

OSABIDE HORTZ KLINIKA
Arantza Etxebarria

- Odontologia orokorra
- Ortodontzia
- Periodontzia
- PADI

Bidebarri 27. behe eskuina
ALGORTA
94 430 76 96



Garaizar

barrikuntzak

- igeltsaritza orokorrean
- etxebizitzak eta lokalak
- gremioak

Tf. 944 430 52 43 / 607 952 977 • regaraizar@euskalnet.net
Illeta kalea 1 • ALGORTA



COMERCIAL de LIMPIEZA VILLAR S.A.

Harrizko moduko kalitatea!

- Garbiketa orokorrak
- Mantentze garbiketa
- Garbiketa industrialak
- Itsasontzi garbiketa
- Ospital garbiketa
- Elikagai Industriak igienizatzea, garbitzea eta desinfektatzea
- Legionellaren kontrako tratamenduak
- Airestatze tutuak, aire girotuak eta hodi industrialak garbitzea
- Lan osogarria

Andres Isasi 11, Behe ezkerria (Bilbo)
Tf. 94 470 06 69 e-posta: bilbao@limpiezasvillar.com



zaindu

Esku Terapia Zentrua
Osteopatia · fisioterapia

Ane Nafarrate Martin

Doctor landa 4, Sopela
Telf.: 946026779

URDULIZEN UDALETXE-PLAZAKO ARRISKUA MURRIZTEKO LANAK

Urdulizeko plaza babesteko neurriak hartu barri ditu Udalak, batez ere, umeen begirako babes-neurriak martxan jartzeko. Horrela, alde batetik, Aita Gotzon kalean goragunea egin dute. Goragune horrek zebra bidea dauka, eta oraingoa, aurrekoa ez bezala, Elortza bidegurutzetik urrunago dago. Horrek ahalbidetuko du auto gidariak denbora gehiago izatea galgatzeko.

PLENTZIako MIKROFILM SHORT FESTIVALEKO II. EDIZIOA ABIAN

Martxan da Uribe Kostako zinema beltzeko jaialdirik ospetsuena, Mikrofilm Short Festivala, alegia. Antolatzaileek iragarri legez uztailaren 5etik 6ra iraungo du jaialdiak, egun bi. Daborduko, lanak aurkezteko epea zabalik dago, eta lehiakideek lanak maiatzaren 6ra arte aurkeztu ahalko dituzte.

Info+: www.mikrofilmfestival.com

OTSAILAREN 28AN, AGROEKOLOGIA HIZPIDE

Uribe Kostako Agroasanbladak antolatuta, agroekologia kafe-tertulia egongo da otsailaren 28an, eguena, Sopolako Plaza Beltzan, 19:00etan. Hizlariak Kubako nekazal esperientziak izango dituzte berbagai.

aldai

TAPIZTEGIA
DEKORAZIOA
ERAKUSKETA
ETA TAILERRAK

Basagoiti etorbidea 32
Tf. 94 460 90 31
48990 ALGORTA

Mankomunitatea

Uribe Kosta eta EHUko kanpusaren arteko autobus linea ezbaian



Gaur egun, Uribe Kostako mankomunitatean ez dago ibilbide hori egiten duen linearik

Uribe Kostako autobus-lineen gaia pil-pilean dago azken aldiak; izan ere, orain dela sei hilabete Bizkaiko Foru Aldundia autobus-lineak berrikusten hasi zen. Horren harira, Bildu koalizioak zenbait alegazio egin zuen. Era berean, Itziar Garamendi Bizkaiko Obra Publiko eta Garraibide ataleko ordezkariaren arabera, iazko uztailaren 31n Aldundiak erabaki zuen egungo enpresaren jardunari lehen luzapena ematea; hortaz, enpresa hori lanean egon liteke 2014ko uztailera arte. Aldundiak prozedura hau babestu du, eta Garamendik adierazi du luzatze horrek ez duela zerbitzua arriskuan jarriko. Esan bezala Aldundiak abiatutako prozesu horren baitan Bilduk zenbait alegazio aurkeztu zuen; alegazio horiek Uribe Kostako erabiltzaileen beharretan oinarritu ei dira. Horrela, alegazio horietan, besteak beste, zera eskatzen zen: linea hobetzea, baita Uribe Kosta eta EHUko Leioa-

Erandioko Kanpusa batuko dituen linea sortzea ere. Bilduren esanetan, Bizkaiko Foru Aldundiak ez ditu kontuan izan egindako alegazioak; horrela, koalizioaren arabera, Aldundiak erantzun du arrazoituz Uribe Kostako udalerriek hainbat aukera dutela Leioa-Erandioko

“Aldundiak muzin egin dio Uribe Kosta eta Leioa-Erandioko EHUko kanpusaren arteko linea sortzeari”

kanpusera ailegatzeko, metroaren eta autobusaren arteko aldaketa eginez, barbarako. Oposizioko alderdien ustean, oro har, autobus-linea kudeatzen duen enpresaren luzatzea, denboraz atzeratuta dago, eta ez da eraginkorra. Hala, egoera horren aurrean, koalizio abertzaleak Uribe Kostako linea martxan jartzeko aukera barriro azter dezaten eskatu du. o

Ots. 25 - Mar. 11

Zuon ekitaldiak iragartzeko • Posta elektronikoa: agendauk@aldizkaria.biz • Tf. 94 491 13 37

ERAKUSKETAK

GETXO

► **Zuzeneko istanteak.** Martxoaren 4tik 9ra. Algortako kultur etxeko erakustaretoan.

► **El jardín (Ibon Garagarzaren eskulturak).** Martxoaren 6tik 31ra. Algortako Torrene aretoan.

SOPELA

► **Euskal feminismoa irudietan.** Martxoak 4, 19:00etan. Kurtzio kultur etxean.

PLENTZIA

► **Emakume begiradak.** Martxoaren 4tik 22ra. Goñi Portalan.

ERANDIO

► **40 años de acción humanitaria independiente (Mugarik gabeko medikuak).** Martxoaren 25era arte. Algortako kultur etxean.

ANTZERKIA

GETXO

► **Kontularien kluba.** Martxoak 8, 19:00etan. Algortako kultur etxean.

GORLIZ

► **Bertso-saioa.** Martxoak 8, 19:30etan. Sertutxenan.

LEIOA

► **Carmen.** Martxoak 8, 20:30etan. Kultur Leioan. 12 euro.

► **Kafe Huts taldea.** Martxoak 7, 19:00etan. Kultur Leioan.

ERANDIO

► **Galtzagorriak dantzan, ipuin-kontaketa.** Otsailak 27, 18:00etan. Astrabuduko liburutegian. Doan.

► **Es una niña.** Martxoak 2, 20:00etan. Astrabuduko kultur etxean. 2 euro.



Iragan perfektua antzeztanaren irudi bat

► **Berbatxangoak**

Kultur Maratila hilaren 28tik martxoaren 3ra

Artedrama Arte Eszenikoen Plataformak eta Kultur Leioak sortutako Kultur Maratila izango da otsailaren 28tik martxoaren 3ra. Otsailaren 28an, *Iragan perfektua* estreinatuko du Horman Poster kolektiboak, 20:30ean. Martxoaren 1ean, *Poza: zergatik dantzatzen dute bosnarrak?* antzeztuko du Metrokoadrokak 20:30ean eta *Bi arreba* bertso eta musika ikuskizuna eskainiko dute Xabier Lizasok eta Andoni Egañak 22:00etan. Martxoaren 2an, *Biutz* antzerki eta zirko ikuskizuna eskainiko du Rouge Eleak 20:30ean, eta Anarik abestuko du 22:00etan. Martxoaren 3an, *Lingua Nabajorum* antzeztuko du Tartean teatroa/ Ez dok hiru bikoteatroak. Sarrerak: 6 eta 8 euro.

• **Non:** Kultur Leioan • **Noiz:** Otsailaren 28tik martxoaren 3ra

MUSIKA

GETXO

► **Peter Abels.** Otsailak 28, 20:00etan. Romoko West Side tabernan. Doan.

► **Fretwork Quintet.** Martxoak 2, 19:30etan. Areetako Andres Isasi musika eskolan. 8 euro.

► **Solasaldi musikatuak: Aiora Renteria.** Martxoak 6, 19:00etan. Algortako kultur etxean. Doan.

► **Kuenta atras.** Martxoak 7,

20:00etan. Algortako Satistegi tabernan.

SOPELA

► **Txarango.** Martxoak 8, 18:30etan. Kurtzio kultur etxean.

► **Zirzira ahots taldea.** Martxoak 10, 18:30etan. Kurtzio kultur etxean.

LEIOA

► **Kantika koral.** Martxoak 10, 18:00etan. Kultur Leioan. 5 euro.

► **El show de Dodo.** Martxoak 15, 22:00etan. Kultur Leioan. 10 euro.

ZINEMA

GETXO

► **Le Skylab.** Martxoak 1, 21:00etan. Areetako Andres Isasi musika eskolan. 2,90 euro.

► **Blackie eta Kanuto.** Martxoak 3, 17:00etan. Areetako Andres Isasi musika eskolan. 2,10 euro.

► **Headhunters.** Martxoak 8, 21:00etan. Areetako Andres Isasi musika eskolan. 2,90 euro.

► **El origen de los guardianes.** Martxoak 10, 17:00etan. Areetako musika eskolan. 2,10 euro.

URDULIZ

► **Criadas y señoras.** Martxoak 8, 18:00etan. kultur etxean. Doan.

BESTEAK

ERANDIO

► **Photoshop ikastaroa (Astrabuduko fotoclub).** Otsailak 29, 19:30etik 21:00etara.

SOPELA

► **Mahaingurua: “Literatura eta sorkuntza”.** Martxoak 6, 18:00etan. Kurtzio kultur etxean.

GETXO

► **Gazta Azoka.** Martxoaren 7tik 10era. Algortako Geltokia plazan.

BARRIKA

► **Emakumeen eguna.** Film emanaldia. Martxoak 8, 18:00etan, Ander Deuna aretoan. Martxoak 9, herri-estropada, 15:00etan, San Telmotik.

GORLIZ

► **Hitzaldia: “3 decadas de feminismo y movimiento de mujeres vasco en imagenes”.** Martxoak 8, 18:00etan. Sertutxenan.



ADITUAK GARA PINTXO ETA
BOKATA BEROETAN!!!!

BASAGOITI ETORBIDEA 51
ALGORTA

[albuma]



Mozorroari eutsiz

Badirudi, mozorroa kentzeko gogorik ez dugula; gure bizimodu aspergarriagaz nazkatuta ei gaude... Antza, aratusteak bukatu ez daitezen desio dugu... Izan ere, gurean bi astez izan dugu bestearen azalean jartzeko aukera; herri batzuetan otsailaren 9-10eko asteburuan ospatu ziren, beste herrietan, ordea, otsailaren 16-17ko aste akabuan. Pena... datorren urtera arte gu geu izan behar-eta!

Argazkiak: **Julen Nafarrate**





Tortilla handiena

Gorlizen, 1973an

Munduko tortillarik handiena egin zuten Sociedad Portalena Guztiok Bat-eko kideek 1973an. Tortilla sukaldatu zuten uneko irudia duzu hau eta bertan agertzen dira: Messeguer, Luis Jauregi, Cuesta eta *Resti*. Argazkia eta antzeko beste hainbat irudi eder topatuko dituzu *Gorliz, herri baten aldiuneak* liburuan. Deia egunkariak argitaratu zuen 2007an, bere 30. urteurrena zela-eta; herritarren eta Udalaren laguntzagaz bildu zuen ehunka argazki, eta orotariko gaiak agertzen dira: eraikinak, ohiturak, egunerokotasuna, hezkuntza, zaletasunak, jaiak eta bitxikeriak. Guztiok Bat-eko lagunek legez, gai izango zinateke tamainako tortilla egiteko?

GORLIZ, HERRI BATEN ALDIUNEAK LIBURUTIK HARTUTA

[berbetan]

Iratxe Martak izandako ardura banatu dute aurten Eunate Muruagak (Berango, 1982) eta Nerea Guijarrubiak (Getxo, 1987), hurrenez hurren: Uribe Kostako AEK-ko arduraduna eta Uribe Kostako Korrika arduraduna. Muruaga Biologian lizentziaduna da eta Irakasle ikasketak amaitzean, 8 urte daroa AEK-n lanean; Guijarrubia Kazetaritzan lizentziaduna, Euskal filologia amaitzean eta UK-ko kazetari ere bada. AEK-k euskararen berreskuratze eta Euskal Herriaren berreuskalduntzea xede ditu. Euskaltegieta eskaintzaz gain, besteak beste ikerkuntza, material didaktikoa sortzea eta kultur ekitaldiak antolatzen ditu, adib.: 11 egun eta 10 gau iraun eta lotu barik Euskal Herria zeharkatzen duen euskararen aldeko Korrika.

Eunate Muruaga Nerea Guijarrubia

Euskaraz bizitzeko!

Testua: **I. Sagarmínaga** / Argazkia: **Hodei Torres**

—Bizimodu ona daroa AEK-k gurean? EM—Gaur egun, 400 bat ikasle eta 22 irakasle ditudu, 4 euskaltegi (Getxon Lauaxeta, Leioan Lamia eta Plentzian eta Gorlizentzian) euskaltegiak). Mailarik jendetsuenak 2. eta 3. dira; aurten batez ere 2. mailak izan du igoera. Titulua ateratze bide horretan, EGA edo 2. maila (B2, C1), dabil ikasle gehien, aurten. AEK-ren helburua herria, Euskal Herri osoa euskalduntzea denez, ez dago titulua ateratzeko bide horretan bakarrik murgilduta. Gizarteak hala eskatuta, horretan ere laguntzen dugu, baina ez da xedea. Helburua hasierako mailak indartzea ere bada, euskara ez dakiena euskalduntze-prozesuan sartzea, euskalduntze-prozesu oso batean jendea euskalduntzea. —Titulu gurak (beharrak?) ala euskara jakiteak erakartzen du jende gehiago?

—Lehen urratsetako mailak bultzatzea da helburua, ikasle gutxi dabilelako gaur egun; nabarmenagoa da titulu bila datozenak gehiago direla. Baina, goi mailetan egonik euskalduntzera datozenak ere bada. Euskalduntze-prozesua da guk indartu nahi duguna, edozein mailatan.

Ikasle kopuruan azken urteotan mugimenduak egon dira. Kontuan hartu ikasleko era ere aldatu dela, euskalduntze-prozesuan sartzen dira berdin-berdin, baina beste era bateko ikastaroak eskatzen dituzte: ordu gutxiagokoak eta auto-ikaskuntzakoak. Bizimodua eta eskaerak aldatu direnez, egokitzen saiatzen gara, *on-line* ikastaroak eskainiz e.a. Hala ere, gure ustez, benetan euskalduntze-prozesu egokia lortzeko beharrezkoa da egunerokotasuna mantentzea, eta taldean ikastea egokiagoa da. Azken lau urteotan auto-

“Eskualdean beherakada orokorra izan da euskara ikasteko laguntzetan, ez AEK-ri bakarrik... leku batean salbu”

kaskuntza eskaerak gora egin dute; talde arruntekoek, ordea, beheranzko joera dute. Halere, ez da konpentsatzen.

—Krisiaren eragina nabaritu duzue?

—Eragin digu, orokorrean erakunde, enpresa, jende orok jasan duela kolpea. Alde batetik, udal-dirulaguntzek behera egin dute orokorrean, eta horrek jende

gutxiago matrikulatzea dakar, jendeak zailtasun gehiago dituelako... Hurbildu nahi duela ikusten da, baina batzuetan ezinezkoa, diru-laguntzarik edo ez bada, zail egiten zaielako. Eskualdean beherakada orokorra izan da; udalek ehuneko portzentaia bat kendu dute orokorrean euskara ikasteko laguntzetan; oro har, ez AEK-ri zuzenean. Halere, mantentzen dituzte. Salbuespena bada, herri batean AEK-ri baino ez diote kendu.

—Zenbait erakunde publikotatik, udal-euskaltegiak “bultzatzeko asmoa” AEK-

ren kalterako izan da.

—Eskualdean toki bakarrean gertatu da. Mankomunitateak lan handia egiten du euskara ikasteko laguntzak emateko edo talde berriak zein talde bereziak (Dendaketa, gurasoena, etorkinena e.a.) sortzeko, lan ona egiten du; eta Getxon, Euskara Zerbitzua oso garrantzitsua da, elkarla-



nean ibiltzen gara euskalduntzen ari garen guztiok: udal-euskaltegia, AEK, denak.

—**Aspaldiko bikoiztasun kontua, zerbitzu “bera” erakunde bik... Irtenbiderik?**

—Bikoiztasuna ez dugu ikusten. Euskalgintzan talde asko ari gara. Hemen elkarlanean aritzen gara, esaterako: Getxoko Euskara Zerbitzuak guztiei ematen dizkie laguntzak, denei antzerako; berbera esango nuke norbanakoei begira, gero erakundeei beste kontu bat izan daiteke... Denok gabilta elkarlanean, talde bat balitz bezala. Irtenbidea? Ufff...

—**Zerk desberdintzen zaituzte?**

—Metogologia izan daiteke. AEK-n uste dugu hizkuntza komunikaziorako tresna dela, harremanetarako eta bizitzeko tresna gisa irakasten da; hizkuntza jakitea erabiltzeko gai izatea izango litzateke. Gurekin ikasten duen pertsonak euskara bere bizitzako arlo eta une desberdinetan erabiltzen ikastea nahi dugu; euskara ikasteko erabili egin behar da. Saiatzen gara ahalik eta praktika lotuen eta erarik atseginenean egiten, ez eskoletan bakarrik oinarritzen... —**“AEK-k lan gehigarria eskatzen du!” entzun da sarri; konpromiso maila...**

—Hala da. Helburu nagusia Euskal Herria euskalduntzea da, horretarako, euskararen normalizaziorako eremu guztietan aritzen da: ezagutzan, erabileran eta sustapenean. Horrez gain, jendaratean txertatutako herri-ekimena denez, euskararen eragile aktibo izateko konpromisoa dauka; beste eragileekin batera, euskararen aldeko jarrerak bultzatzen ditu. Orduan, ezinbestekoa da, eskolez kanpo ere, lan gehigarri hori eskatzea. Gainera, badago bi urtean behin egiten dan Korrika ere; horrek ere kanpo-lan hori eskatzen du bai ala bai. Ez da bakarrik mugatzen eskoletan ematen ditugun ordu horietara, baizik eta horietaz kanpo ere lan egiten dugu jendea txerta dadin eta euskara erabil dezan.

—**Gehiengoa D ereduan ikasi, hazitakoa bada, zergatik behar da oraindik AEK?**

—Hori 10-15 urtetik honakoan errealitate da. Aurrekoek ez zuten aukerarik izan

D ereduan ikasteko; bada belaunaldi bat edo gehiago euskaldundu barik dagoena. Euren seme-alabak D ereduan ikastera sartu dituztenez, euskaraz edo euskal kulturaren eta euskal ohiturekin bizitzen ikasten dute; haiek ez daukate hori. Hor hutsunea dago. Beste bat etorkinena dateke. Integratu nahi baditugu, ezinbestean ezagutu behar dute gure kultura, eta *“herri*

“Etorkinak eta D eredu aurreko belaunaldiak euskalduntze-prozesuan sartzeko esparruetan badago zer egin”

bat ez da ezagutzen bertako hizkuntza ikasten ez bada”. Gero, euskaraz ikasi, erabili ez eta berreskuratu nahi dutenak daude. Aipatutako horietan ere badihardugu...

—**Horiengana heltzea ez da erraza.**

—Etorkinentzat programa bereziak daude; Aisa taldeak, euskarara hurbiltzeko lehen pauso txikia e.a. Gero, euskalduntze-prozesuan sartu beharko lukete, baina ez dute jarraitzen. Normalean, ez dituzte seme-alabak D ereduan sartzten. Gurasoek apur bat ikasiz gero, agian umeak D ereduan sartzeko erraztasun handiagoa egon daiteke. Alderantzizko kasuak ere izan dira: umeak D ereduan sartu eta gero gurasoak hurbildu. Oraindik lan handia dago egiteko. Gero, “aurreko belaunaldikoak”, nik uste, gero eta gehiago ikusten direla, batez ere seme-alabak D ereduan egonik

“Korrika-batzordeei esker eroaten da askotan aurrera lana; zoritxarrez ez dira herri denetan sortu, ez dugu lortu”

ikusten dutelako nolabaiteko beharra, umeekin komunikatzeko, etxerako lanak egiteko... Halere, hor ere badago zer egin. —**Martxoak 22, Korrika Uribe Kostan; bost ordurako, hor ere zenbat zeregin!** NG—Askoi! Sekulako lana! Batetik, instituzioekin elkarlanean aritzen saiatzen gara, mota askotako laguntza eskatu... Oro

har, Korrikarekiko jarrera baikorra izaten da Uribe Kostan. Bestetik, beharrezkoa dugu herrietan batzordeak sortzea; horien lanak sekulako garrantzia du. Zoritxarrez, ez dugu lortu herri guztietan batzordeak sortzea, Plentzia, Gorniz eremu horretan zailagoa da. Batzordeei esker eramaten da askotan aurrera lana, bai elkarteei eta bai norbanakoei esker gauza asko antolatzen

dira herrietan. Eta noski, AEK-kideok ere bagaude; buru-belarri ibiltzen gara. Lanak: baimenak eskatu, ekimenak antolatu herrietan bai egunean bertan baita aurretik ere e.a. Korrika Kulturaleko ekitaldi batzuk maila nazionaletik antolatzen dituzte, beste asko herrietatik, eta horrek ere sekulako lana eskatzen du. Publizitatean ere bada lana: kartelak-eta ipini, herria apaindu... Kilometroak saltzea batzordeetatik bidera daiteke, baina AEK-k kudeatzen du. Korrika-lagun dinamika ere hor dago, herrietako komertzioetara-eta jotzea laguntza eske, norbanakoei begirako Korrika-kide ere bai...

—**Eta Korrika heltzean? Eta ostean?**

—Egun horretan ere ekimenak antolatzen dira, bada lana: antolatu, kudeatu... Ostean, balorazio-batzarrak egiten dira Batzor-

deekin bildu, akatsez eta ondo egindakoez berba egin... hurrengorako hobetzeko. Aipatu beharrekoa da Korrika amaitu bezain laster hurrengoa prestatzen hasten garela. —**Zelan joan da kilometroak saltzea? Zein da ordaintzen dutenen soslai?** —Badoa, pixkanaka, azken asteetan izaten da mugimendu handiena. Soslaiari

dagokionez, denetarik egoten da. Uribe Kostan behintzat, herriaren arabera, kasu batzuetan udalek eurek, erakunde publiko bezala, erosten dituzte, beste batzuetan ez, baina aurretik diru-laguntza eman dutelako. Esaterako, Getxon, alde batetik, udal-lagingileek jartzen dute dirutxo bat, bestetik, aurretik Udalak dirua eman du. Erosle gehienak elkarrekin dira: euskara elkarrekin,

“Benetako apustua egin dezatela, ez daitezela lotu soilik Korrikan parte hartzearekin; euskara da maite duguna!”

kiroletakoak, alderdi politiko batzuk, kulturalak, eskolak e.a. Norbanako batzuek ere erosten dute, baina apur bat anekdotikoak dira. Leku askotan kilometroak erdibana egiten dira, gehienbat ez dagoelako horrenbeste kilometrorik!

—**Aurten lehenengoz udalez udal eskatu behar izan dituzue baimenak.**

—Gehienbat, Korrika aurretik kalean egiten den diru-bilketarekin, kuestazioarekin lotutako kontua da. Lehen nazio mailako baimena eskatzen zen, herri denetarako. Aurten, Espainiako Gobernu Deleagaritzak gutuna bidali die udalei, esaterako Leioakoari, esanez udalez udal eskatu beharko dela. Kontu burokratikoak dira.

Txikitan korrikan, orain antolakuntzan

—**Txikitan irrikaz zain, urtetan korrikolari; orain barruan, antolakuntzan. Zer sentitzen duzue?**

E.M.—Orain, agian, emozio handiagoa. Bertan lan egitean eta batez ere, emaitza ikustean, esaten duzu: “egin dudan lan guztiak balio izan du; begira zenbat jende mugitu den hau guztia antolatzeko! Merezi izan du!”. Guk ere korrika egiten dugulako, egunean bertan ikusten dugu jendeak nolako harrera ona izaten duen beti. Eskertzekoa da; are gehiago, lan guztiaren ondorioa dela dakizunean. Parte hartzeko deia egin nahi dugu. Orduan ikusten da jendeak euskaraz bizi nahi

—**Bestelako eragozpenik?**

—Nazio mailan izan diren ez dakit... Uribe Kostari dagokionez, lehenengo, aitortu behar dut egiteko honetan berria naizela, lehenengo urtea da, baina momentuz, ez dut oztoporik antzeman. Egunean bertan edo Korrika Txikietan sor litezke, koordinazio kontuak trabes litezke, urte batzuetan izan dira halako akatsak, kale bat

moztu beharra eta ez egitea e.a. Baina dena ondo ateratzea espero dugu...

—**Urtero presoen aldeko irudiak-eta ateratzen direlako ere entzun behar...**

—Argi eta garbi esan behar dugu Korrika euskararen aldeko ekimena dela, ekimen anitza, eta sentsibilitate askotako pertsonen bertan parte hartzea bilatzen du. Horrek dakar euskararen aldarrikapenarekin batera beste batzuk batzea. Ez dakit zein puntutaraino Korrikaren kontrolpean egon daitekeen pertsona batek argazki bat eramatea, edo beste aldarrikapen bat... Hori bigarren edo hirugarren plano batean lotu beharko litzateke; euskararen aldeko ekimena dela aldarrikatzea da lehenen-

dua; ez dela gutxi batzuek eskatzen duguna, baizik eta orokorrean gizarteak egiten duen deia dela. Batzuetan euskararen mundua, euskalgintza, instituzionalizatuta geratzen da; ematen du hortik kanpo ez dela ezer egiten... Korrikan ikusten da ez dela gutxi batzuen burutazioa. N.G.—Beti bizi izan dut emozio handiarekin! Baina, egia da, prestaketa-lanetan zabiltzanean, Korrika baino lehenago ere emozioz gaituta zaudela. Badakigu lan handia dela... Ekar ditzakeen buruhautetate-eta alde batera utzita, ondo dakigu gauza polit baten alde lanean gabiltzala, hori presente daukagu. Jendeak Korrikan

goa. Eskerrak ekimen horretara sentsibilitate eta kolore askotako pertsonak biltzen diren! Horrek aberastasuna dakar, eta euskararen aldeko lanean eta bidean indarra ematen digu.

—**Noiz arte galapan, karraderan? Noiz lasaitu ahalko dugu pausoa?**

—AEK-k noiz arte jarraitu behar duen kontuarekin lotuta dago. Herria euskalduntzen denean, helburua lortuta, desagertuko da. Euskal Herri euskalduna lortu arte! Nahi genuke, bihar bertan izatea; zoritxarrez, bide luzea daukagu. Gainera, kasu batzuetan aurrerapausorik ez da ematen, hainbatetan atzerapausoak ere...

—**Batzuen ustez: “bi urtean behin kontu bera, aspalditik! Zerbait “berritzaileagoa” proposatzeko sasoi da...”**

—Berrikuntzak egin egin dira. Aurten, adibidez, badaude transmediako aplikazio batzuk, sakelakotik ibilbidea ikusteko e.a. Garai berriei egokitu da, halere, nire ustez, bere xarma, esentzia gordetzen du; Euskal Herri osoan pasatzen da, hortik ere askok sentitzen dugun emozioa... eta gurean pasatzean! Nahiz eta garaia aldatu, uste dut, Korrika egon egongo dela. Dagoeneko, gizaratean errotuta dago, jendea zain dago, emozioz! Berdin die berrikuntza teknologikoak eta... Hori ere egiten da, baina Korrika Korrika da! o



Antartidakoak

Indonesiako, Andamaneko (India) eta Angolako itsasoen ostean, Kepa Acero surflari algortarraren “5 itsaso” egitasmoaren barruan, hurrengo jomuga Antartidako olatuak ziren.

Haraino abiatzeko Ushuaiako (Suaren Lurralde, Argentina) portuan Unai Basurko nabigatzaile santurtziarraren Pakea Bizkaia belaontziaren ibilbideagaz bat egin zuen. Bila ibilitako olaturik ez du aurkitu, baina pinguinoen eta izotz-mendien erreinu hozminean surf egiteak ez dauka parekorik!!! Irudiok lekuko. Hurrengo helburua: Mediterraneo itsasoa.

Argazkiak: **Kepa Acero eta Pakea Bizkaia**





Uribe Kostako dorretxeak > 15 dorretxe inguru dago gurean

Gure dorretxeak, sei menderen ostean, zutik irauteko borrokan

Berbatxango ederrak antolatzen dituzte, noizean behin, Uribe Kostako berbalagunek; adibidez, eskualdeko dorretxe batzuk ezagutu zituzten abenduan. Aitzakia baliatu dugu gure ondare zaharra hobeto ezagutzeko asmoz. Unai Aurrekoetxea arkeologoarengana jo dugu, bisitaldia berak gidatu zuen-eta.

Militar funtzioa betetzeko eraiki ei zituzten lehen euskal dorretxeak leinuen arteko liskarren garaian (bandoen arteko gerrak), baina, asko eta asko, egoitza edo etxe izateko besterik ez zituzten egin. Uribe Kostan ere badaukagu hainbat dorretxe eta ibilaldi polita egin zuten berbalagunek iragan abenduan, Unai Aurrekoetxea Fernandez arkeologoagaz.

Beragaz gogoratu dugu txango hura, hain zuzen ere; Bizkaiko Arkeologia Museoa daukan bulegoan hartu gintuen leioztarrak eta galderak egin ahal izan genizkion ondare ederrari buruz. Gainera, Armando Llamosas getxotzar arkeologoak osatu du Uribe Kostako dorretxeen zerrenda, ondoko orrian ikusgai. Esatea historiografiak edota herritarrek dorretxetzat hartu dituzten eraikinen zerrenda dela (prestigioz, ohituraz, arkitekturaz, tradizioz...), nahiz eta, gehiengotan, baserriak edo jauregiak izan.

Bando-gerrako eraikinak

Leinu zahar eta garrantzitsuenak XIII. mendeko lehenengo erdialdean sortu ziren, baina ia gehienak garatu ziren XIV.ean, bi bando nagusi sortaraziz: Oñaztarrena eta Ganboarrena. Garai hartan hasi ziren Bando-gerrak eta, horrenbestez, orduan hasi ziren eraikitzen



Ondizko dorretxea (Leioa)

dorretxeak. Batez ere bide inguruetan kokatzen zituzten, bideok kontrolpean izateko; baina hiri barruan ere badago dorretxerik, adibidez, Plentziako Torreioia: Plasentia-Butroe Museoa hartzen du

Militar itxura izan arren egoitza izateko eraiki zituzten gure dorretxe gehienak

gaur egun eta XVI. mendekoa da.

Aipatu dugunez, funtzio militarra zeukaten lehen dorretxeek, XIV. mendekoak, eta itxura aldetik nabarmendu behar da: bertikaltasuna tiro-eremu handiago izateko; horma lodiak eta ez oso luzeak, eraikinaren altuera bere egonkortasuna arriskuan ez ipintzeko. Ordukoa da Erandioko Martiartu dorrea; halere, egungo eraikina ez da hasierakoa, berre-

raikitakoa baizik. XV. mendean dorretxe asko eraitsi zituzten, Bando-gerrak zirela, botere publikoaren eskuartzea zela. XV eta XVI mendeetan berreraiki zituzten asko eta ordukoak dira egungo dorretxe gehienak.

Baina daborduko gerra ez zen arrazoi nagusia dorreak eraikitzeke: dirudienez, leinuek beren irudia gogortu gura izan zuten, pribilegioak dudan jartzen hasten ziren garaian. Beraz, baserri edo etxe funtzioa bete zuten handik aurrera.

Hainbat eredu

Lau dorretxe bisitatu zuten berbalagunek, eredu desberdinen lekuko: Martiartu Erandion, Ondiz Leioan, eta Otxandategi eta Basagoiti Berangon. Martiartukoa da, antza, Uribe Kostako dorretxe “*peto-peto bakarra*” eta Martin Ortiz de Martiartuk eraiki zuen. Bera XV. mende



Martiartu dorrea (Erandio)

hasieran hil zen eta egungo dorrea beranduagokoa da, XVI.ekoa. Beraz, baliteke egungo dorrea hasierako bera ez izatea, eta aurretik egurrezko beste bat egon izana oraingoaren lekuan edo inguruan.

Alboko herrian dago, bestalde, Ondiz dorrea, Leioan. Hari esaten diote: “*dorre ez den dorrea*”. Antzinako itxuragaz egin zuten, militar itxuragaz, baina bizilekutzat erabili zuten. Dorre izatetik baserri izatera igaro zen eta, orain gitxi, hasierako itxura berreskuratu du (aldaketak aldaketa: leihoak edo atek), barritu ostean.

Erandioko Martiartu dorrea ei da Uribe Kostako dorretxe peto-peto bakarra

Berangora ere hurreratu behar dugu, bertan daude Basagoiti eta Otxandategi dorreak. Egun, oraindino, etxe edo baserri dira eta jendea bizi da bertan. Biek dauzkate XVI. mendeko arkitekturaren aztarnak, adibidez: puntadun leihoak.

Azkenik, Plentziako Torreioia aipatu gura genuke, izan ere, hiribildu barruan dago dorrea, egun Plasentia-Butroe museoaren egoitza. Hiri barruan bizitze-

ak ez ei zuen prestigiorik, jauntxoek izena edo ospea defenditu behar zuten hiri barruan ere. Horregatik, senideak kokatzen zituzten horrelako dorreetan, hiri barruan. Orain, irakurle, zuk zeuk egin dezakezu txangoa gure dorretxeak ezagutzeko, ea beren hormek eta harri zaharrek zer kontatzen dizuten. ○

Otxandategi dorretxea (Berango)



HISTORIOGRAFIK EDOTA HERRITARREK DORRETXETZAT HARTU DITUZTEN ERAIKINAK:

- ERANDIO
 - Asua (Asua-Lauroetan)
 - Martiartu
 - Ugarte (Ugarte auzoan, aztarnak)
- LEIOA
 - Ondiz (Ondiz auzoan, berreskuratuta)
- GETXO
 - Getxo: aspaldi desagertuta
- BERANGO
 - Basagoiti (Eguskizako errepidean)
 - Berango (aztarnak Otxandategi biribilgunetik ikusten dira)
 - Otxandategi (Otxandategi auzoan)
- SOPELA
 - Bareño (baserria)
 - Sopela (eliza ondoan, desagertuta)
- URDULIZ
 - Torrebarri (1670ekoa, dorretxearen lekuan)
- BARRIKA
 - Torretxe (baserria)
- PLENTZIA
 - Torreioia (1562koa, dorretxe itxurako hiri-jauregia, gaur Plasentia-Butroe museoa)
 - Plazencia (1603an eraiki zuten, gaur egun Butroe jauregia dagoen orubean)
 - Torrezar (Portaleta kalean, desagertuta)



BETIKO
IKASTOLA

Kalitatezko irakaskuntza euskalduna

- 0 eta 16 urte bitartean kalitatezko hezkuntza euskaraz.
- Ingelera 4 urtetik. Frantsesa DBHn.
- Zerbitzu ugari: autobusa, jantokia, merienda, zaintza.
- Eskolaz kanpoko aktibitate ugari.
- Ikastolen Elkartearen Leioako Ikastola bakarra



Ikastolen Elkartea

Deitu eta informa zaitez
Tlf: 94 464 23 64
94 464 33 07
Fax: 94 464 22 05
Helbidea: Artatza auzoa 84
info@betikoikastola.net
www.betikoikastola.net

GAVRKO



**GIZONENTZAKO
MODA**

Telletxe 5
ALGORTA
Tf. 94 460 70 84

[zinema]

Euskara Jendea sei ataletan “Gure hizkuntzaren historia, gure historiaren hizkuntza”-ren dokumentala



Info+: www.euskarajendea.com eta info@euskarajendea.com

Ibaizabal-Mendebalde eta Zenbat Gara kultura elkarteek ikus-entzunezkoen esparrura eroan dute Juan Carlos Etxegoien *Xamar* irakasle nafarrak 2006an *Euskara Jendea. Gure hizkuntzaren historia, gure historiaren hizkuntza* (Pamiela) argitaratutako lana. Hori oinarri hartuta izen bereko dokumental-sorta egin dute eta otsailaren 28an estreinatuko dute Donapaleuko Otsail Ostegunak mintzaldietan. Gainontzeko aurkezpen eta emanaldietarako udaberrira arte itxoin beharko.

Egileek azaldu dutenez, “*dibulgaziozko lan honen bidez publiko zabal bati aurkeztu nahi zaio euskararen eta bere herriaren historia*” eta *Xamar*-ek Aitzin-solasean adierazten duen legez, “*Ikerketa serioen eta zabaldutako topikoen arteko amildegia bete nabian, liburu batzuk egitera iritsi gara baina ez da aski, jakina. (...) Liburutik irudi bizietarako jauziak gure Herriaz dugun pertzepzioa hobetzen*” lagunduko duela uste du.

Sei ataletan banatzen da dokumentala, historiaren orden kronologikoa jarraituz, hurrenez hurren: Historiaren atarian, Erromako Inperioan, Aniztasunaren bidean, Mugetan gaindi, Gerren arteko pizkundea eta Mundua osatzen. Atal bakoitzak 40-45 minutu irauten du eta euskaren eta euskal historiaren ibilbi-

«Iparraldean salbu, gainontzeko aurkezpenetarako udabarriari itxoin beharko zaio»

dean barna lagun ditu arkeologoen, antropologoen, hizkuntzalarien, ikerlarien, euskaltzainen, irakasleen, kantarien eta abarren azalpenak eta iritziak, besteak beste: William A. Douglass, Lourdes Otaegi, Peter Bakker, Neskuts Izagirre, Jurgi Kintana, Joseba Lakarra, Joseba Agirreazkuenaga, Jose Angel Irigaray, Jon Sarasua, Iñaki Camino, Elena Torregarai, Beñat Oihartzabal, Antonio Breschi eta Amaia Aireren berbak. ○

Mobydick, bigarrena abian

Getxoztar bakarlariek “**crowdfunding**” bidez argitaratu gura du **Cotard Delusion**



Folk-rock iluneko 9 abestik osatuko dute Mobydicken *Cotard Delusion*

Orain bi urte eskas plazaratutako (*covers*) izeneko bertsioen EParen ostean, bigarren lana, lehenengo LPa prestatzen dabil Mobydick ezizenez ezaguna dena bakarlarria, Eneko Burzako getxoztarra. Egitasmoa aurrera eramateko “crowdfunding” baliabidea erabiltzea erabaki du, hau da, zale edo interesa daukatenen diru-ekarpenak jasotzea proiektua finantziatzeko; trukean diskoa, edo diskoa eta kamiseta, edo diskoa, kamiseta eta sarrera bat jasoko du laguntzaileak. Dagoeneko 160 langunen ekarpenak jaso ditu Mobydicken lan barriak, eta babesa eskaini gura dionak oraindik aukera

dauka. Lana CD-Digipack eta liburuxka batez osatzen da. Folk-rock iluneko 9 kantuk osatuko dute diskoa, akustikoak gehienak, eta *Cotard Delusion* izenburua eroango du. Madrileko Audiomatic-Drax estudioetan grabatu du, musika tresnetan Claudio Pavan (bateria eta perkusioak), David Lamiquiz (pianoa eta teklatuak), Josu Cobelo (baxua) eta Alvaro Barriusoren (gitarra zuzenean) laguntza izan du, eta Ainara Legardón, Nacho Mastretta, Jabi Elorriaga eta Jose Angel Burzakoren kolaborazioak. ○

Info+: www.myspace.com/mobydicklove
Egitasmoan laguntzeko:
goteo.org/project/nuevo-disco-mobydick

diskoak

On
Autoekoizpena



Itsaso Gutierrez (ahotsa eta gitarrak) donostiarrak, Denis Alberdi (bateria) berrizarrak eta Ibai Suarez (baxua) bermeotarrak osatzen dute On. Lehenengo disko hau rock indartsuz osatu dute eta letra asko “emakume-begiradatik eta kezken inguruan” sortu dira. Fermin Muguruza, Fernando “Apoa” eta Delirium Tremens-eko Andoniren kolaborazioa izan dute.

20 T-Mazos
Distorsion
DDT Baraketak



Hamaika urteren ostean, estudioan sartu eta 20 kantuko diskoa grabatu du 80. hamarkadako punk taldeak. Kaleratu zituen hiru diskoetako kanturik ezagunenak eta gustukoena hartu eta barriro grabatu ditu Barakaldoko taldeak, eta horiez gainera abesti barraren bat ere sortu dute. Diskoagaz gitarrarako pua serigrafiatua oparitzen dute

...Bi Belarri Entzuteko
Batzuen artean
Elkar



Txikia izanik, Handitzen handitzen eta Asko Maite zaitut, nik umeei begirako kantu-bildumen ostean *Bi begi ikusteko, bi belarri entzuteko* diskoa plazaratu du Elkarrek. “Haur kantu ezagunak eta euskal kantutegi tradizionalekoak” osatzen dute lana, besteak beste: “Pello Joxepe”, “Bakarrik eta libre”, “Aitorren hizkuntza zaharra” e.a.

kontzertua > Anari Leioan

Artedrama plataformak Kultur Leioagaz elkarlanean Kultur Maratila ekimena, musika, antzerki eta zirku eskaintza prestatu du. Ekitaldi dan-danak euskaraz dira, eta hilaren 28tik martxoaren 3ra bitartean eskainiko dira. Horien artean Anarien kontzertua dago; hala, abeslari eta gitarra jole gipuzkoarraren *Irla izan* (BideHuts, 2009) laneko doinuakaz eta beste gozatzeko aukera egongo da. Emanaldia martxoaren 2an izango da, 22:00etan (sarrera: 6 euro). Halaber, kontzertuaren aurretik, Rouge Eléak-ek *Biutz* aurkeztuko du, antzerkia, zirku eta bideoa buztartzen dituen ekimena.

Info+:
www.kulturleioa.com/agenda/tag/maratila

jaialdia > Mojo Workin'

Donostiako IV. Mojo Workin' jaialdia martxoaren 1, 2 eta 3an izango da. R&B estiloari begirako jaialdiaren lehenengo egunerako egitarauak hainbat DJ-ren emanaldiak iragarri ditu, lehenengo saioak Eigerren 18:00-21:00 bitartean, eta ostean Victoria Eugenia Clubean 23:00h-05:00 bitartean. Zapatutako musika-eskaintza hau da: 17:00etatik 20:00etara Gazteszenako Areto Txikian DJen emanaldia eta 21:00etan hasiko dira zuzenekoak: Melvin Davis eta Lazy Lester (AEB) eta barrieo elkartu den Gasteizko The Allnighter taldea. Domekan, 18:00etatik aurrera Jamaican Soul Festa egingo dute Le Bukowskin.

Info+:
mojoworkindonosti@gmail.com

etorri eta ikusi!!

MORIXA
Liburudenda

Alargorta 8 (Euzko Herria kaleko bar) / Tf. 94 491 68 05 / Algorta

Getxoko Andra Mari Gasolindegia

Txartel hau aurkezten baduzu
%50eko deskontua izango duzu zure autoaren garbiketan

Getxo eta Berango artean
Tf. 94 430 15 00
(15 eguneko epemuga)

I

Iñaki Bitxitegia

OMEGA, LONGINES ETA TAGHEUER AGENTZIA OFIZIALA

Villamonte plaza 3 Tf. 94 430 23 45
Telletxe 1 Tf. 94 460 27 41

Algorta

[literatura]

Karmele Jaio Algortan

Uribe Kostako Irakurzaleen Txokoak otsailaren 28rako ipini du hitzordua

Karmele Jaio (Gasteiz, 1970) gonbidatu du otsaileko zitara Uribe Kostako Irakurzaleen Txokoak. Eta idazle gasteiztarraren azkeneko ipuin-liburua, *Ez naiz ni* (2012, Elkar) da berbaldirako proposatu duten lana, horren inguruan eta ziu-rrenik bere bestelako lanen gainean zein euskal literaturaz oro har jardungo du Jaiok hilaren 28an 19:30etik aurrera Algortako Aldai Patronatuan.

Aipatutako liburua 12 ipuinek osatzen du eta mamia hala laburbil daiteke egilearen ahotan: “...Zerbait falta dute, zer den ondo ez badakite ere. Gaztetasunaren azken izpiez gozatu nahi dute batzuek, lehengo garai ustez eder haiek berreskuratu; esperientzia berriak bilatuko dituzte beste batzuek, modu batean zein bestean, edo

«Proposatuta dutena: gasteiztarraren Ez naiz ni azkeneko ipuin-liburua»

hondatzen hasitako harremanak biziberritzen saiatu. Bizitzaren erdialdean daude denak, eta horrek eragiten dien ezinegorean beren tokia aurkitu nahi lukete. Pertsonaia batek dioen bezala, zailena ez baita zahartzea, zahartzen hastea baizik... Eta zu eta ni hor gaude, ulertzen?”. Bizitzaren erdigunean daudenen, “40 urte edo pasatxo di-




Karmele Jaio (Gasteiz, 1970)

tuztzen”, kezka, dira istoriootako protagonistak, eta danek halako, zelanbaiteko hustasun moduko bat sentitzen dute. “Bizitzaren parte bat egin dute, heldu dira norabait, eta ez dakite ziur hori ote zen nahi zutena... Batzuk konturatzen dira bizitzak aurrera egin duela, beste batzuk ez” azaldu zuen idazleak aurkezpenean.

Hamabost zauri (2004, Elkar) eta *Zu bezain ahul* (2007, Elkar) lanen ostean, hirugarren narrazio-liburua da berbetarako proposatutakoa. Horrez gainera, nobela ere idatzi du gasteiztarrak, hainbat sari jaso zituen *Amaren eskuak* (2006, Elkar) eta *Musika airean*-ek (2009, Elkar). ○

liburuak



Mozoloaren bakardadea
J. L. Zabala eta B. Durruty
Erein

“Mozoloa bere habiatik irten gabe bizi da... Lehen lotsagatik zen; orain beldurragatik”. Begoña Durrutyren irudi edo marrazkiak eta Azkoitiako idazleak moldatutako ipuin tradizionalagaz osatutako album ilustratua da. Idazlearen esanetan, “irudiak testuak adinako garrantzia du”.



SU HAIETATIK KE HAUKE
Iñaki Petxarroman
Txalaparta

Gipuzkoan hondakinen inguruan dagoen gatazkaren gaineko begirada pribilegiatua izan du Iñaki Petxarromanek, kazetari gisa hasiera-hasieratik jarraitu ditu-eta gorabehera danak. Informazioa antolatuta eta liburuan batu du, errealitatea ulertzeko gakoak eskainiz.

[kirola]

Maria Lopez de Eguilaz > hockey-jokalaria

“Holanda hockeyaren paradisia da; futbol zelai baino hockey-zelai gehiago dago”



Belar-hockeyan sari asko lortu ez ezik, aretoko hockeyan munduko txapeldunordea ere izan da

Belar-hockeyan bizitza erdia baino gehiago eman du Maria Lopez de Eguilaz getxoztarrak. Ibilbide horri errekonozimendua egiteko asmoz aurreko hilean Sasoi Sasoiari kirol-saria jaso zuen.

—Zenbat urte gaz hasi zinen hockeyan, eta zein izan da zure ibilbidea?

—Zazpi urterekin hasi nintzen Jolaseta hockey-taldean jokatzeko, aurrelari hasi nintzen, eta egia esan, garai hartan, niretzako hockeya beste kirol bat zen, besterik ez. 11 urterekin, ordea, atezain jarri ninduten, eta hor aldaketa eman zen. 12 urterekin Espainiako sub16 taldeagaz nire lehenengo kontzentrazioa izan nuen. Hogei urtera arte Jolaseta jarraitu nuen, eta ondoren, Real Sociedad taldera joan nintzen. Bertan, zazpi denboraldi egin nituen, eta aurretik nire lehen urtea da Holandan atezain.

—Zein da hockeyan profesionalizazioaren egoera?

—Ni une honetan Holandan nabil profesional. Nahiz eta jasotako diru-kopurua handia ez izan, bizitzeko ematen du. Ego-

era hori baina, hemen ezinezkoa izango litzateke; hemen ez du inork kobratzen. Halere, Holandan ere, gizonen eta emakumeen arteko ezberdintasunak agerikoak dira; berbarako, gizonen emakumeen hirukoitza kobratzen dute.

—Zelako esperientzia Holandan?
—Egia esan, profesionalki hazten ari naiz. Holanda Hockeyaren paradisia da; ber-

«Hemen ezinezkoa da hockeytik bizitzea; Holandan, aldiz, bai»

tan, hockey-zelaiak futbol-zelaiak baino gehiago dira. Baina, niretzat profesionala dena, beraientzako normala da. Etorkizunari begira, ez dakit, momentuz urte bateko esperientzia izango dela uste dut.

—Poz handia hartuko zenuen sariagaz...
—Saria jasotzeak harritu ninduen, hockeya ahaztuta dagoela uste dut-eta; emakumeak are gehiago. Ilusio handia egin zidan, nahiz eta beste kirol-sariak izan, kiroltik kanpoko sariak ere garrantzitsuak dira kirola bera sustatzeko. ○

BISITATU GURE DENDA!

MOROTXO

Kantxa Kirol moda



350 m²
KIROLERAKO GUZTIA!!

URIBE KOSTAKO KIROL DENDA

TORRENE 4, ALGORTAKO AZOKA
48990 ALGORTA / TF. 94 491 18 82

ETXKO ELEKTROTRESNEN KONPONKETA

Lacofris S.L.



Tf. 94 430 52 00 Kasune 18 · ALGORTA

Iosu Albizu Rique > Zeelanda Barria

“Hiriak *The walking dead* telesailaren itxura dauka”

2010eko inauteri ostean alde egin zuen Iosu Albizu Riquek Leioatik eta munduan barrena bidaiatzeari ekin zion. Asian, Malta eta Australiar egon da eta, orain, Zeelanda Barria. Gainera, asmoa dauka bizimodu horregaz jarraitzeko, eta mundua eta jendea ezagutzen segitzeko; badirudi lortuko duela: Zeelanda Barriak diru apur bat egiteko aukera emon dio-eta. Duela sei hilabete iritsi zen Zeelanda Barrira eta gaur egun Christchurch hirian dago beharrean, etxeko labeetako atehingeniari. Beste sei hilabete egongo da bertan, eta gero, batek daki!



Irla nagusi bi dauka Zeelanda Barriak eta hegoaldekoan dago Christchurch, irlako hiririk handiena: bertan bizi da Iosu Albizu Rique leioztarra.

Zelakoa da

Canterbury eskualdeko hiriburua da Christchurch, errugbiaren hegoaldeko harrobi nagusia: errugbia eta alkohola dira bertako pasio biak. Azken urteotan lurrikara bi izan dira bertan eta, horien ondorioz, lan eskerga dago hirian eta *backpacker-en* edo ekipajerik bako bidaiarien lan paradisu bilakatu da.

Zer bisitatu

Poliziaz josita ei dago hiria eta, Albizuk dioenez, *The walking dead* telesailaren itxura dauka, oso deprimentea da. Halere, ba ei ditu ikusteko gauza batzuk, horietako gehienak hiritik kanpo, noski. Morbosoa bazara beti ikus dezakezu hiri-

ko zentroa, oraindino apurtua dagoena eta inpresioa eragiten duena; baina eskalatzeko eta surf egiteko ere leku ona ei da. Sumnerreko hondartza surflariz josita dago beti eta, nahiz eta apur bat zikin egon, leku ona da egunpasa joateko; bazuetan izurdeak ere ikus daitezke. Toki ederra da egun eguzkitsu baterako: auto bategaz galtzea bezalakorik ez dago Zeelanda Barria, beti aurki daiteke-eta paisaia zoragarriren bat.

Harritzeko modukoa

Hirira iristean gertatu zitzaion gauzarik harrigarriena Albizuri: 22:00ak ziren eta inor ez kalean; bidegurutze batean ezkerrean jo eta militar bat aurkitu zuen, metrailetaz: a zer ezustekoa hartu zuen! Geroago azaldu zion han ezin zela sartu. Gaueko isiltasunak eta segurtasunak belhurtu zuen Albizu eta, gaur egun ere, halako sentsazio arraroa eragiten dio. ○



Nor da

Nongoa
Leioakoa

Adina
27

Zertan dabil
Bidaiatzen ari da, leku eta pertsona barriak ezagutzen

Lana
Oraintsu etxeko labeen atehingeniari dabil lanean

Noiz arte
Sei hilabete gehiago lotuko da eta gero auskalo, baina bidaiatzen jarraituko du

Non dago

Lurraldea
Zeelanda Barria

Azalera
1.426 kilometro koadro

Hiria
1850ean sortua, Wellington hiriburutik 300 km-ra

Kokapena
Herrialdeko hego irlaren ekialdeko kostan, Ozeano Barean

Biztanleria
390.300 biztanle

Hizkuntza
Ofizialak maoriera eta ingelesa, baina beste hainbat ere badago

Dirua
Dolar zeelandabarritarra

Aritza Bergara

Atal honetan agertzen diren testuak eta ilustrazioak “Euskal Herriko Mitologia. Jentilen aztarnen atzetik” proiektutik ateratakoak dira. Adarmendi eta Orritz euskal kultur elkarteek bultzatutakoa. Materialak ikusteko edo informazio gehiago lortzeko www.euskalherrikomitologia.com webgunera jo.

Basajaun eta Basandere

Mari Jainkosaren sendia ezagutu ostean, gure mitologian agertzen diren erraldoiak aurkezteko txanda da. Horien artean Basajaunak dira, dudarik gabe, ezagunenak. Izenak adierazten duen moduan, basoetako jaunak dira eta antzina-antzinako garaietatik basoetan bizi dira beren bikoteekin, Basandereekin.

Fisikoki ile askoko erraldoien arraza modura deskriba ditzakegu, arinak ibileran eta azkarrak zein indartsuak, neurriz gainekoak. Oso harreman berezia dute artzainekin, eta ekaitza hurbil denean garrasika hasi eta jakinaren gainean jartzen dituzte. Gainera, haien presentzia hutsak otsoak aldenitu egiten ditu.

Basandereren gainean, zoritxarrez, ez dago hainbeste datu. Kondaira batzuek diotenez, zenbait kobazuloren sarreretan ikusi ei dituzte, urrezko orrazi batekin ilea orraztuz.

Kondaira

Sarako eskualde menditsuan San Martiniko izeneko gaztea bizi izan zen orain dela hainbat bosturteko. Adimentsuenetakoa eta azkarrenetakoa zen, eta, hainbat triki-mailuri esker, inguruan bizi ziren Basajaun erraldoien teknika batzuk ikastea lortu zuen; horien bidez, gizakien bizi kalitatea hobetzen lagundu zuen. Hala, badirudi gaztea errota batean bizi zela, eta bere lanagatik bizirautea ahalbidetzen zion dirua irabazten zuela. Aitzitik, konponbide zailko arazo bat zuen: bere erroren ardatza haritzez eginikoa zen eta azkar erretzen zen frikzioarengatik, etengabe lanerako balio guztia galduz. Mihi gaizto batzuk diotenez, denbora gehiago pasatzen zuen arazoa konpontzen, ehortzi beharrekoa ehortzen baino, eta horregatik San Martinikori



Basajaun eta Basandere. Ilustrazioa: Daniel Castello

“errotari” deitu ordez, “konpontzaile” deitzen zioten; baina hori beste istorio bat da. Aldiz, ezaguna zen Basajaunen erroten ardatzak askoz ere iraunkorragoak zirela, zen-

«Harreman berezia dute artzainekin; ekaitza hurbil denean, garrasika, jakinarazten diete»

bait bosturteko irauten zutela ordezkatzen ibili behar barik.

–“Nola ikasi haiengandik ardatzak erakitzen?”- pentsatzen zuen goizero San Martinikok, erantzunik topatu gabe...

Behin amarru batekin saiatzea otu zitzaion: mezularia bidali zuen Basajaunen basora, bere errota inolako etenik gabe

funtzionatzen zuela barreiatu zezan. Hala egin zuen mezulariak. Lau haizeetara erroteriak agindutakoa oihukatuz, baso osoa zeharkatu zuen atsedetik gabe, Basajaun erraldoi bat bere aurrean jarri zen arte. Hark, mezulariak oihukatutakoa entzundakoan, zera erantzun zion:

–“Horrek esan nahi du otsaileko ilberan moztutako haltzarekin egindako ardatza jarri diola”.-Horixe erantzun zion erraldoi iletsuak, bere hitzekin bere arazak horrenbeste denboran eta ardura handiz gordetako sekretua jakinarazten zebilela konturatu gabe. Eta mezulariak zera erantzun zion:

–“Ez, ez du jarri, baina jarriko du”.

Eta horrela jakin zuten gizakiek erroren ardatza egiteko sekretua. ○

[badaukazu non aukeratu]

[pintxotan]

Taberna eta jatetxe asko dugu gurean. Gida honetan aukeraketa xumea aurkeztu gura dizugu, aniztasuna albo batera utzi barik, eta gozaten has zaitezten.



portu zaharra bar
 Portu Zaharra kalea 35
 48991 Algorta - Getxo (Bizkaia)
 Tf. 94 460 20 33
 portuzaharra@portuzaharra.com
 www.portuzaharra.com



SOLAETXE
 Eguneko menua **Jatetxea** Karta
 Asteburuko menua Oilasko erretegia
 Sarriena auzoa 166 - 48940 Leioa (Bizkaia) Tf. 94 463 24 87 Fax. 94 431 69 55 www.restaurantesolaetxe.com



La Triangu.
 Arriatera 83, SOPELANA Tf. 94 676 34 07



berezi
 Hanburgesak Ogitartekoak
 Sanwichak Plater konbinatuak
 SABINO ARANA 34 48640 - BERANGO
 ESKAERAK: 94 668 10 64 (BERTAN JASOTZEKO)



BODEGUILLA BUTRON
 Bidebitarte, 4 y 5 - Algorta (Getxo)
 94 430 01 74
 www.bodeguillabutron.com



txakoli mota gane tx. txakolina
 Leioa-Unbe errepidea 34 (Akarlana Parkea) Gohierri-Erandio
 Tf. 94 467 00 07 www.txakolimotagane.com



UNAI TABERNA
 C/ Alangobarri n°3 C.P. 48991 Getxo Telf. 94 466 16 61



CAFETERIA COSMOPOLITA
 Andres Larrazabal 5, 48930 Areeta-Getxo
 Tf. 94 608 51 34 - Mug. 609 44 08 80



JAN-TOKI ORMAZTEBAL
 Eguneko menua
 Menu bereziak
 Karta
 Erreserbak:
 94 476 2389
 607 21 89 61
 LUTXANA-ERANDIO



GURE ETXEA taberna
 HAMBURGESAK, PINTXOAK ETA GIRO EDERRA
 Caja de Ahorros, 14 - Romo / T. 94 463 68 80

Zure taberna edo jatetxea hemen agertzea gura baduzu ipini gugaz harremanetan:
94 491 13 37
publiuk@aldizkaria.biz



GOSARIAK PINTXOAK
 KOPAK, MUSIKA ETA GIRO EDERRA
SOPELA
 Ripa Kalea 1 (Udaletxe atzean)

Onddo pil-pila

betiko platera, pintxo itxuran



Bodeguilla tabernako barran topa dezakezu honako pintxoak

Oraingoan Bodeguilla tabernara itzuli, eta itsasoko usaina eta lurreko jakiak batzen dituen pintxo ederra topatu dugu; bakailaoa pil-pil erara eta onddoak dituen pintxoak, hain zuzen. Hori bai, honako pintxoak egiteko, denbora eta sutean ibiltzeko gogoa izatea ezinbestekoa izango da; izan ere, zaila ez bada ere, denbora hartu beharko dugu hura egiteko. Horrela, hasteko, bakailaoa pil-pil erara egin beharko dugu. Sortu gura ditugun pintxoaren arabera bakailao medailoiak egin beharko ditugu; pintxo bat egin gura izanez gero, medailoi bakarra, eta gehiago gura izanez gero, bada, gehiago egin beharko ditugu. Horrela, apurka-apurka bakailaoaren pil-pila egin beharko dugu, berakatzatza, olioak, bakailaoa erabiliz, noski! Pipermina jarritz ere egin dezakegu. Behin hori eginda, pil-pilaren saltsa onddoak batera batuko dugu, berakatzatza erabiltzea ezinbestekoa izango da horretarako. Ondo nahastu, eta onddoak batera egindako saltsa bakailaoaren gainean botako dugu. Bota aurretik, baina, onddoak txiki moztu behar ditugu. Hortaz, ogi xerraren gainean bakailao medailoia, eta horren gainean pil-pil saltsa onddoak jarriko dugu. Azkenik, eta amaitzeko pintxoari gainetik perrexila bota diezaiokegu. Eta hortxe aukera, gurean ohikoa den platera pintxoan jateko. On egin! o


Osagaiak: bakailaoa, olioak, berakatzatza, pipermina, onddoak, perrexila



Zurikaldai
 JOKIN GARATE BAYO Neguriko Etorbidea 9 T: 491 14 87 48990 NEGURI
 KIMETZ GARATE AZURMENDI Aingeruaren etorb. 4B (sarnera, Jata Mendia) T: 460 01 87 48990 GETXO



BASARTENA
URDULIZ
 Teléfono: 946 761 128



TXIBERRI edantokia
frontoi partikularra
 Aita Gotzon 4, URDULIZ
 Tf. 94 676 07 15



Taberna Berri
 Sarrikobaso 4 - ALGORTA
 Tf. 94 430 64 93



JUAN-MARI
 Harategia eta txarkuteria
ARTESANA
 LAS MERCEDES 31 • Tf. 94 464 41 25
AREETA



KONTXI ZUAZUBISKAR
URDAITEGIXA
 Adituak gara, Urdaiazpiko Iberiko, Pate eta Gaztaietan!!
 Alangobarri 10, ALGORTA
 Tf. 94 491 02 93

ITXASGANE
prentsa • aldizkariak
GETXOKO KIROL PORTUA
Apiriluzeko z.g. • Tf. & Fax: 94 491 53 21
ALGORTA • GETXO

Torrene 2
48990 ALGORTA
94 491 12 71
iratialgorta@gmail.com
irati
OPARIAK MODA GAZTEA

GOIZEAN

"Gozoki eta prentsa, gutxi denik ez pentsa"
Prentsa - Fruitu lehorrak - Aldizkariak - Lixxereriak
Orduña Mendatea 1 Telletxe 13
Tf. 94 430 22 13 Tf. 94 460 02 88
GETXO ALGORTA

zure publizitatea hemen!
publiuk@aldizkaria.biz
Tf. 944 911 337

[horoskopoa]

URA



(Abenduak 21 urtarrilak 19)
Azkenean aurten animatu zara mozorrotzen, ederto egin ere! Ez dituzu gozatu, bada, inauteriak! Gehiegi gozatu ere, orain egunero urten gura duzu mozorrotuta...

OTSOA



(Urtarrilak 20 otsailak 18)
Ene zein polita Balendin Deunaren eguna, ezta? Maitaioari sorpresa antolatu zenion baina, horren ostean, ezer gehiago ez. Aizu, maitasuna egunero zaindu behar da!

ADARRA



(Otsailak 19 martxoak 20)
Beti daukazu zer egin eta zer ospatu! Sagardotegira urteera dela, inauteriak direla, Zuberoko Maskarada dela... Atsedean hartzeko asmorik ez daukazu ala?

AITZURRA



(Martxoak 21 apirilak 19)
Laster hasiko zara entrenatzen, Korrika dator-eta! Hasieran, egunero egingo duzu bost kilometro eta, apurka-apurka, gero eta gehiago. Korrika osoa egin behar duzula?

HOSTOA



(Apirilak 20 maiatzak 19)
Urtero legez, sagardotegira joateko gogo daukazu, baina lagunek kasurik ez, parrandarako zahartuta omen. Lasai egon, hamaika tokitan antolatzen dituzte-eta urteerak.

EGUZKIA



(Maiatzak 20 ekainak 18)
Euria eta eurria besterik ez azken aldian, eguzkia ikusi ere ez dugu egiten eta, halere, zu beti bezain beltzaran. Dusia jaitsi beharko zenuke, gehiegi nabari zaizu solarium-eko kolorea dela!

GARIA



(Ekainak 19 uztailak 18)
Aldaketaz beteta abiatuko duzu udabarria: etxe barria, herri barria... dana barria, eta ilusioz beteta abiatu ere! Ez urduritu, lasai egon, primeran joango da fase barria.

LASTOA



(Uztailak 19 abuztuak 17)
Udatiarra zu, surfa praktikatzea gustuko duzu, nonbait. Udabarria datorrela baliatu eta egunero joan ahalko zara hondartzara, baina kontuz ibili marrazoakaz!

IRATZEA



(Abuztuak 18 irailak 16)
Ezin pozago zabilta azken aldian: ligatu zenuen egunetik, hain zuzen ere. Aurrerantzean ere gozatzen eta maitemintzen jarraituko duzu, txoraxora eginda daukazu-eta!

META



(Irailak 17 urriak 16)
Lan-elkarrizketa egiteko deituko dizute, baita joan ere. Baina bertaratu eta ohartuko zara beste hogeit lagun daudela zure egoera berean. Arnasa hartu eta aurrera, zer eskaini badaukazu-eta!

HAZIA




(Urriak 17 azaroak 15)
Urteagaz batera hasi zinen gimnasioan, eta daborduko nekatu zara? Aste Santura arte behintzat eustea zeneukan, Korrikan parte hartzeko ederto etorriko litzaizuke entrenamendua.

NEGUA



(Azaroak 16 abenduak 20)
Zorionekoa zu, norbaitek opari polita egingo dizu-eta! Euskal paraje ederren batean asteberu zoragarria igarotzeko gonbitea egingo dizu, zuk eguna aukeratu besterik ez duzu izango. Ondo pasa!



Kopiak
SALGAI
UK aldizkariaren
bulegoan




Uribe Kostako aldizkariaren ekotzpena



denborapasa

HITZ GURUTZATUAK



LUMA aldizkariaren eskutik

Ezker-eskuma

1. Voltmetro, gas hodi edo arku elektrikoetan, generadore elektrikoaren polo positibo zein negatiboan finkatutako eroale elektrikoaren muturretako bakoi-tza. 2. Musika ikurra. Osoro, erabat. 3. Fosforoa. Oharra idatzi. 4. ... batez, une batez. Argizagi, astro. 5. Edateko gogoa. Erbioa. 6. Germanioa. 7. Euskadi, sabindarren erara. Txarri ama. Oinarrizko edaria. 8. Zain, espero. Zuhazpeko babesgune, gerizpean babesteko leku. 9. Ez onak, ez egokiak. 10. Urrats handiak eginez.

Goitik behera

1. Ogibide, lan. Azkenekoa. 2. Lotan. Igeri eginez. 3. Txirindularitza itzulietan, egunero egiten den lasterketaldia. Musu-truk, dohainik. 4. Nahiz aitoren seme ez izan, bere ondasunetatik, ez bere lanetik, bizi zena. Sagu, bokal barik. 5. Tonaren laburdura. Urruma eginez, marmumaka. 6. Edari alkoholdun. Izabako. 7. Pluralean, Eukaristiako ogia, gaur egun gari irinezko olata txiki biribila dena. Ardi, hitz elkarteetan. 8. Joaki dira. Aitzin. 9. Zortzi aurpegiko poliedroak. 10. Pertsona baten izaera, bizitzan eta gainerako pertsonen aurrean aritzeko moduari dagokionez. Errepikatuz, gorotza.

Soluzioa

A	V	R	A	R	T	E	K	A	S	K	A	R	A	K
A	V	R	A	R	T	E	K	A	S	K	A	R	A	K
A	V	R	A	R	T	E	K	A	S	K	A	R	A	K
A	V	R	A	R	T	E	K	A	S	K	A	R	A	K
A	V	R	A	R	T	E	K	A	S	K	A	R	A	K
A	V	R	A	R	T	E	K	A	S	K	A	R	A	K
A	V	R	A	R	T	E	K	A	S	K	A	R	A	K
A	V	R	A	R	T	E	K	A	S	K	A	R	A	K
A	V	R	A	R	T	E	K	A	S	K	A	R	A	K
A	V	R	A	R	T	E	K	A	S	K	A	R	A	K
A	V	R	A	R	T	E	K	A	S	K	A	R	A	K

ez horren gaztetxoak < bilatu eta irabazi > gaztetxoak

Zelan deitzen da Artedramaren eta Kultur Leioaren kultur ekimena?

> Aurrekoaren erantzuna: Lemoizko udaletxearen atzealdea

> Irabazlea: **Izaro Munarritz**

*deitu telefonoz: 944 911 337

Noiz da Emakume Langilearen Nazioarteko Eguna?

- Otsailaren 14an
- Martxoaren 8an
- Martxoaren 31n

> Aurrekoaren erantzuna: Barrikan

> Irabazlea: **Alaia Arako**

*deitu telefonoz: 944 911 337


SARIA **Oinutsik**
kontsulta podologikoa

Zubigane 4, SOPELANA. Tel: 94 404 74 20
oinutsik@euskalnet.net

SARIA **La Gusana**
liburudenda **lagusana**

Tellagorri plaza, ALGORTA. Tel: 94 491 14 12

Bidali erantzuna eta zure izen-deiturak uk@aldizkaria.biz helbide elektronikora edo 94 491 13 37 telefonora deitu



SAN NIKOLAS LIBURUTEGIAK UTZITAKO ARGAZKIA

Bittor Egurrola

ZUAZAGOITIA FARMAZIAREN AURREALDEAN, 1880-1882

Basagoiti etorbideko 87. zenbakian, "Txomintxu" ren etxetik hurbil zegoen, 1880an Candido Zuazagoitiak irekitako farmazia, "botica nueva" herritarrek deitua, bigarrena zelako. Hamar urtetan edo Algortan bizi izan zen, geroago Madrilera joan zen eta, azkenez, Bilbon finkatu zen. Algortan bizi zela, Areetako eta Neguriko florari buruzko lanak egin zituen eta izendegi zientifiko ornitologikoa ere idatzi zuen gazteleraz, euskaraz eta latinez. Argazki hau datatzeko eta komentatzeko 2010eko azaroko "Getxoberri" aldizkaria (1154. zenbakia) eta liburu bi erabili ditugu:

-*Historia de Guecho* Egilea: Carlos M^a Zabala, hirukoiztarra. (326-7 or.)

-*Apuntes para la historia de Guecho* Egilea: Jose J. Bta. Merino Urrutia, Getxoko alkate ohia. (101- 2 or.) o

Hesiaren aurrean: Jose Olivares, Carlos Rochelt, Jose Amann, Barandica.

Hesiaren atzean: Milagros Barroeta, (J. Barroeta (1835-1907) pintorearen arreba), Francisco Serrano (farmazia honetan kimika ikasi zuena), Carolina Abasolo.

HAIMAR AREJITA> musikaria

“Neguan poltsa beroarekin lo egiteko ohitura daukat”

Testua: **Nerea Guijarrubia**



Defini egizu zeure burua berba bitan.

Pertsona lasaia.

Orain zarena izango ez bazina zertan gura zenuke jardun? Zergatik?

Irudimenarekin lotutako lanbideren batean jardungo nuke

Badaukazu ohitura txarren bat?

Neguan poltsa beroarekin lo egitea.

Zer barik ezin zaitezke bizi?

Maitasun barik.

Kontzertuetan gertatutako bitxikeriaren bat?

Neska bati begiratzearren egin behar nuen bakarkakoa ahaztea.

Zein galderari ez zenioke inoiz erantzungo?

Bati baino gehiagori; baina ez dizkizut esango...

Zer edo nor eroango zenuke irla isolatu batera?

Gitarra.

Zein da zure ametsetako bat?

Musikatik bizi ahal izatea, bizitza duina izatea musikatik biziz.

Euskal Herriko zure txoko kuttuna? Zergatik?

Nafarroako herri txikiak, Olite bezalakoak... Erdi Aroko esentzia gordetzen duten herriak, alegia.

Zein hutsegite ez duzu inoiz barkatzen?

Nik gauza gehienak barkatzen ditut; baina agian, gauza bat esan eta beste gauza bat egiten duten pertsonak, esaterako.

Gogoko esaldi edo lelorik?

Norberak nahiko ez lukeena, besteei ez egin.

Eguna ala gaua?

Eguna. Uste dut pertsonak egunean bizitzeko eginda daudela. Gauean, beste aspektu batzuk irteten dira.○

LABURREAN—Haimar Arejita gernikarrak, gitarra-joleak, 2002an Gatibu taldearen ibilbideari hasiera eman zion Alex Sarduigaz batera; alkarregaz batu, eta Gatibu proiektuaren lehenengo hazia erein zuten. Orditik hamaika urte egin dituzte batera, eta bost diska izan dira euren sorkuntzaren fruitua. Azkena, *Zazpi kantoietan* pasa den urte amaieran kaleratu zuten, eta Durangoko Azokan diskorik salduena izan zen. Arejita Gatibun erabat buru-belarri dabilen arren, beste proiektu batzuetan ere parte hartu izan du, betiere gehien gustatzen zaiona egiten, gitarra jotzen, alegia. UK-ri aitortu legez, musikatik bizi ahal izatea da bere ametsa; bide horretan, ziur, lortuko du!

beharsarea.net
 lana euskaraz

Lana behar dut!

beharsarea
 lana euskaraz
 getxon, leioan, erandion

Jendea behar dut!
 ¡Necesito personal!

egizu!

Getxo
 bizi ezazu

Leioa
 UDALA-AYUNTAMIENTO

E!
 Erandio

BFA DFB
 BIZIAZ
 BIZIAZ

GOBIERNO VASCO
 GOBIERNO VASCO



ARTEDRAMA - KULTUR LEIOA

www.kulturleioa.com



PREZIOAK	BONOAK
6 € - 8 €	BONOMARATILA (6 ikuskizun): 30 €



DISENUA: Idia Beratarbide & Iria komunikación

**Leioa
2013**

OTSAILAK 28

"Irgan perfektua"

Horman Poster Kolektiboa
ANTZERKIA (ESTREINALDIA)

HARTXOAK 1

"Poza: Zergatik dantzaten dute bosniarrek?"

Metrokoadroka kolektiboa
ANTZERKIA (AURRESTREINALDIA)

"Bi arreba"

Xabier Lizaso & Andoni Egaña
MUSIKA / BERTSOAK

HARTXOAK 2

"Biutz"

Rouge Eléa
ANTZERKIA / ZIRKOA / BIDEOA

Anari

ROCK

HARTXOAK 3

"Lingua nabajorum"

Tartean Teatroa /
Ez dok hiru bikoteatroa
ANTZERKIA / UMOREA

ARTEDRAMA eta KULTUR LEIOAK elkarlanean sortutako programa kulturala. Antzerkia, dantza, bertsoa, musika, performancea... uztartu eta plazaratzea helburu duena. Lau egunez publikoak **euskal sorkuntza** ezberdinez gozatzeko parada. Zabaldu maratila, ireki leioa.